

**PELLO SALABURU
EUSKALTZAINDIAN SARTZEA**

Arizkun, 1985-III-31

PELLO SALABURU JAUNAREN EUSKALTZAINDIAN SARTZEA

Arizkun, Martxoak 31, 1985

Fr. Luis Villasante

Euskaltzainburuaren hitzak

Roman Felones jauna, Nafarroako Hezkuntza eta Kultur Kontseilaria.

Felix Uztarroz, Baztango Alkate orde jauna.

Joan Irigoien Arizkungo Jurado jauna.

Euskal Komunitate Autonomo eta Foru Diputazioen Ordezkarriak.

Jaun-Andreak:

Euskaltzaindiak Arizkunen egiten du gaur bilkura, herri hontako seme baten —Pello Salaburu jaunaren— Akademiaren sartzeari ospatzeko. Ez dakienaren faboretan esan dezagun, hasteko, Euskaltzaindi hori zer den. Euskaltzaindia deitzen diogu euskararen Akademiari.

Edozeinek daki hizkuntzek izan ohi dituztela beren Akademiak, mintzairari buruz arau gidariak emateko jarriak. Urrunago joan gabe, bada erdarearen Akademia, bada frantsesarena, eta abar. Gure euskarak ere badu berari dagokion Akademia, eta horri deitzen zaio Euskaltzaindia. Akademia horretan egiten du gaur sartzeari Pello Salaburu, Arizkungo herri honen semeak.

Euskaltzaindi honen egitekoa da euskararen goiti-beheitiak nolabait erregelatzea. Hortarako kargua eta mandatua du Euskal Herriko lau Diputazioek emanik; hots, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako Diputazioek mende honen hastapenean emanik.

Bai, bazuen gure euskara on-beharrak horrelako zerbaiten premia, eta premia gorria. Mendeetan barna bizi izan da euskara ia babes eta baliamentu guztiez gabetua, kasik bertan behera utzia. Ez zuen eskolan sarbiderik, ez ofizialtasun fitsik, ez gizartean ohore edo distirarik. Haatik irauin izan du gure egunok arte, ez bitartean galera eta gibelamendu handiak izan gabe. Euskaltzaindia jarria izan zen, bada, euskara artatu eta bere behertzapenetik altxatzeko. Zer lana!

Bestalde, gaur euskarak gizon jakintsuen estimua bereganatu du. Ez da guti. Eta hau da estimu horren arrazoia: Europako lehen hizkuntzen hondar

bakarra baita. Hizkuntz gaietan adituak direnek uste dute, bada, euskara dela Europako lehen hizkuntzen hondar bakarra, bazter honetan miragarriki bizirik iraun duena. Beraz, gure inguruan bizi diren beste hizkuntzek kanpotik geroago etorriak omen dira.

Guretzat, berriz, euskara Euskal Herri honen ondarea da. Eta ondasun hori gaur arriskutan eta galzorian ikusten dugu.

Horregatik eta horretarako sortu zen, bada, Euskaltzaindia: mintzaira honen salbamenduko lanean aritzeko.

Zaila da benetan, zinez gaitza, Euskaltzaindiari egotzi zaion egitekoa. Euskara bizirik atera, landu, apaindu, bizkortu, iraun arazi. Hizkuntza hau behar bezala erabiltzeko arauak eman. Euskararekiko auziak eta arazoak bideratu.

Euskaltzaindi honek bere galtzarrean bi sail ditu: Iker saila eta Jagon saila, erran nahi baita, euskara ikertu eta euskara artatu. Bi sail horietan sartzen da nolabait Euskaltzaindiaren egiteko guztien bilduma. Azkenaldi honetan bere eskuen artean dituen ekintza nagusiak hauetxek dira: Hiztegia, Gramatika eta Euskararen Atlasa. Hitz batean esateko, Euskaltzaindiak euskarari bideak paratu nahi dizkio, iraun dezan, lant dadin, osasun onaz bizi dadin.

Baina euskararen salbamenduko obra handi honetan badira behaztopaharri bereziak ere, zeinetarik geure burua beharko baitugu gorde obra honek atarramendu ona izango badu. Hiru bereziki aipatuko ditut, gaingiroki baino ez bada ere.

Lehenbizikoa da zatiketatarik eta elkarren arteko borroketarik alde egi-tea. Batasuna behar dugu. Euskaltzaleok, guztiok bat eginik ere, guti gara. Ez gaitzen taldekerietan barrea. Bakoitza bere aldetik ibiliz eta elkar janez ez dugu fitsik egingo. Egiten diren ahaleginak nolabait gidatu eta koordinatuko dituen Erakunde baten beharra dago, eta horretarako da, hain zuzen, Euskaltzaindia, propio eta berariaz horretarako jarria.

Ni nago gure lanak sarritan ez ote diren alferrik galtzen euskaltzaleen artean batasunik ez delako, ezin ikusiak gure artean direlako, behar den beste komunikazio eta elkar hizketarik ez delako. Ekintza honetan Erakunde baten gidaritza behar-beharrezkoa da, eta, hain zuzen, horretarako dago Euskaltzaindia; baina hura alde batera utzirik, bakoitzak bere bidetik ibili nahi badu, porrot egiteko arriskuan gaude. Azken finean batasunetik dator indarra.

Eta bigarren arriskua: herriko euskararekin lokarriak mozteko arriskua. Hori bi eratara gerta daiteke: bai gehiegizko purismoaz eta bai gehiegizko erdalkeriaz ere. Zilegi izan bekit gaur gerta daitekeen zerbait adibide gisa aipatzea.

Gaur “euskaldun berriak” deitzen ditugunak asko ugaritu dira, eta eskerak ematekoa da, noski. Hori berez seinale ona da eta itxaropide handia. Baina inoiz gertatzen da euskaraz ongi ikasi gabe jartzen baitira gero irakas-

le. Orduan hurrek uste dute beren gurasoek baino hobeki dakitela horiek euskara, eta hori ez da hola. Gaietiko edo axaleko zenbait gauzatan izan daiteke hori egia, baina ez hizkuntzaren muinari dagokionetan. Oker aditu horren ondorioz gizaldi batetik bestera pasaia egin ordez, etena egiten da. Lehengo euskara jatorraren ordez, euskara murriztu, idor eta giharrerik gabe-koaz gelditzen dira haurrak. Bai ahozkatze jatorra, bai azentua, bai esapi-deak moldatzeko jeinua, hitzak, itzulikak, dena galdu edo arras pobretua gelditzen da. Ikastolak behar du familiako euskararen aberaste bat izan, ez ordea etsai. Lokarriak tradizioarekin mozturik, dena galtzen da.

Hirugarren arriskua, azkenik: euskararen aldeko lan hau politikaz nahastekoa. Euskaltzaindiak ez du hori nahi, zeren euskara guztiona baita, herri baten ondasuna eta altxorra, alegia; politika, aldiz, berezile da, zatika-tzaile. Euskara politikazko aukera berezien gaietik dago.

Euskaltzaindiak badu, bada, zeri begiratu eta goardia eman, euskararen salbamenduko obra hau ongi gidatu eta bideratu nahi baldin badu; eta hortan da.

Gaur Arizkun herri hontako seme bat, Pello Salaburu jauna, sartzen da Euskaltzaindian. Bihotzez zorionak eman nahi dizkiet, bai berari eta bai Arizkungo herri honi ere.

* * *

Señoras, señores:

La Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia celebra hoy sesión pública y solemne en este pueblo de Arizkun para recibir en su seno al nuevo académico de número Sr. Pello Salaburu, hijo de esta localidad baztanesa. El Sr. Pello Salaburu sucede en la Academia al Sr. Angel Irigaray, fallecido en noviembre de 1983 y que era asimismo navarro, pues había nacido en Vera de Bidasoa.

Como es sabido, las recepciones de nuevos académicos se celebran con arreglo a un ceremonial o ritual que es más o menos similar en todas las Corporaciones de esta índole. Por lo que se refiere a nuestra Academia, es ya una costumbre, que creo que arranca casi desde los principios, el que tales actos de recepción se celebren en el pueblo natal del nuevo académico. No es, desde luego, una ley y ha tenido, sin duda, excepciones, pero sí es una constante.

La razón de ello es obvia: la Academia quiere aprovechar estas ocasiones y otras similares para inculcar o despertar en el pueblo la conciencia del valor y dignidad de su lengua.

Una lengua como la vasca, que ha vivido en una casi total indefensión y desvalimiento, sin acceso a la escuela, sin que se la admitiera para los usos oficiales, nobles y de un cierto brillo social —si alguna excepción hay que hacer, y aun ella relativa, habría que hacerla a favor de la Iglesia—; una len-

gua, como digo, abandonada a su suerte, acaba perdiendo prestigio y crédito a los ojos de los propios hablantes, lo cual no es más que el primer paso para que éstos renieguen de ella y la abandonen. Creo que este desprestigio social se halla en la base de los grandes retrocesos padecidos por el euskara.

Por esto, la Academia, en la medida que le permiten sus modestas posibilidades, se esfuerza por inculcar en el pueblo la conciencia del valor, dignidad e idoneidad de esta lengua, y, en una palabra, por sacarla de su ostracismo. Al fin y al cabo, esto es algo que se confunde con sus mismos fines.

Efectivamente, la Academia fue creada y existe para la rehabilitación de la lengua. Por ello la causa de la Academia se confunde con la de la lengua, puesto que aquélla fue creada y vive para ésta.

No es éste el momento de trazar la historia de Euskaltzaindia, Real Academia de la Lengua Vasca, pero tal vez no esté de más refrescarla un poco, pues desgraciadamente el desconocimiento al respecto es bastante general, y, lo que es aún peor, la desinformación y las interpretaciones torcidas o versiones incorrectas de los hechos no son nada infrecuentes.

Parece que la primera mención expresa de la necesidad o suma conveniencia de fundar una Academia que trate de resolver los problemas que plantea esta lengua se debe a José Francisco Aizquibel (1798-1865). Aizquibel era azcoitiano, pero no vivió en el país, sino en Toledo. Estuvo en Roma al servicio de un canónigo y más tarde fue secretario del Duque de Granada. Las circunstancias de su vida le permitieron viajar por gran parte de Europa y adquirir una bella cultura. Pero este vasco, alejado físicamente del país, no por eso renegó de él ni de su lengua, sino todo lo contrario; y, paradójicamente, será él el primero en denunciar el caos o desorden existente y en proponer, como remedio, la creación de una Academia, cuyo fin principal sería la formación de una lengua literaria común. Esto lo dice Aizquibel en un opúsculo publicado en Madrid en 1856 y titulado "De la lengua euskera o de los vascongados" (1).

Permitaseme citar un párrafo de este trabajo de Aizquibel:

"Esto mismo quisiéramos que sucediera con nuestro Euskera, que poco a poco se formase un dialecto clásico o literario, que comprendiesen igualmente los habitantes de todo el país Vascongado indistintamente, como puede suceder muy bien, si el clero del país en su predicación y publicación de devocionarios y de obras de instrucción cristiana, usase de un lenguaje puro y escogido, arreglando para ello una gramática, que reuna los elementos primitivos de esta lengua en su mayor pureza, sin hacer caso de ninguno de los actuales dialectos, y atendiendo sólo a la verdadera y genuina restauración de la lengua, aproximándose, cuanto se pueda, al estado que tenía en la época de su mayor apogeo o de su mayor pureza. Para esto es indispensable la forma-

(1) Véase *Eusko Bibliographia*, de Jon Bilbao, s. v. Aizkibel.

ción de una academia compuesta de Vascongados, que hayan hecho estudios especiales sobre su lengua, o que hayan estudiado las lenguas orientales, o dedicándose a estudios lingüísticos, admitiendo igualmente en su seno a todo filólogo o lingüista extranjero que se dedique al estudio de nuestra lengua. Las autoridades del país deben proteger y contribuir para la prosperidad y buen éxito de los trabajos de esta corporación, que serían sumamente útiles para el país y para la ciencia filológica, llevando a cabo el gran pensamiento de nuestro adorado patricio, el Sr. Conde de Peñafiorida, fundador de la Sociedad Vascongada de Amigos del País, que produjo tantos beneficios. De este modo estaría unida esta nación con el tiempo ethnográficamente, bajo un dialecto común literario, que al cabo de un siglo o dos predominaría por la ventaja de ser comprendido en las siete provincias o distritos de diferentes dialectos, que hoy se conocen y no se pueden entender unos con otros, ya que es imposible reunirlos políticamente, perteneciendo a dos naciones poderosas. Progresaría muchísimo la literatura vascongada, porque habría más consumo de libros euskeranos, puesto que les será comprensible a todos el dialecto literario, y entonces se publicarían muchas gramáticas, diccionarios y obras útiles, que, por temor de falta de venta, se hallan en el día en el estado de manuscritos, unos concluidos y otros abandonados, sin ningún género de estímulo para concluirlos" (2).

Sin duda que hoy, a más de cien años de distancia, habría que limar asperezas en el tenor literal de algunas expresiones de Aizquibel, pero no se puede negar que hizo un diagnóstico certero de la situación y apuntó el remedio.

Aizquibel se preocupó también por recoger y coleccionar, en la medida que pudo, cuantos libros se habían publicado en esta lengua en cualquiera de sus variedades, por humildes que fueran, y por hacer su descripción bibliográfica. El mismo nos dice textualmente:

"Por experiencia propia sabemos lo que cuestan estas investigaciones en un país, en donde se ocupan y se cuidan tan poco de su lengua" (3).

También Duvoisin en sus cartas a D'Abbadie —Mecenas que organizaba y pagaba de su peculio los torneos de poesía vasca— habla de la conveniencia de crear una Academia de esta lengua. José Manterola en su Cancionero Vasco, aludiendo al desorden ortográfico existente, lamenta la falta de una Academia que reglamente estos extremos. Y el próximo año se cumplirá el centenario de las Fiestas Euskaras celebradas en Durango en 1886. En ellas D. Aristides de Artiñano presentó un proyecto muy concreto y detallado de Academia Bascongada, como él la denominaba. Incluso elaboró unos Estatutos para ella (4).

(2) *Sobre la Real Academia de la Lengua Vasca*; Bilbao, 1976.

(3) *Jesús Elósegui* "Algo sobre José Francisco Aizquibel" en *Homenaje a Julio de Urquijo*, 1949, t. I, pp. 181-196.

(4) *Sobre la Real Academia de la Lengua Vasca*; Bilbao, 1976.

Pero pese a todos estos planes y esbozos, el proyecto tardará aún en llevarse a cabo. También en la correspondencia mantenida entre Broussain y Azkue —aún inédita en su mayor parte— sale a cada paso el proyecto de una futura Academia y la mención de la obra unificadora que ésta deberá realizar.

Después de muchos intentos y tentativas que resultaron fallidos se vino a caer en cuenta que el proyecto no se realizaría si las autoridades públicas del propio país no tomaban cartas en el asunto.

Y fue así, en efecto. La Diputación de Vizcaya en 1918 aprueba en principio la idea y la pasa a las Diputaciones hermanas de Alava, Guipúzcoa y Navarra pidiendo que ellas asimismo den su conformidad para que las cuatro de mancomún puedan crear la Academia, le confieran autoridad o rango de institución pública para ocuparse de los problemas de la lengua vasca y la sostengan económicamente. Así se hará en los años de 1918 y 1919 con la preciosa ayuda que por encargo de las mismas Diputaciones prestó la Sociedad de Estudios Vascos.

Se trata, por tanto, de una Institución pública, creada por las autoridades del país y que ha recibido de ellas el mandato o misión de normalizar las cosas de la lengua vasca.

No estará de más tampoco recordar cómo fueron escogidos los primeros académicos, pues también este detalle revela a las claras la conciencia que existía de que la nueva corporación debía salir de algún modo del seno del pueblo euskaldun y estar a su servicio. Los nuevos académicos no los nombraron a dedo las Diputaciones. Se decidió que a título de “compromisarios” debía autorizarse para elegirlos a los directores de las revistas o publicaciones vascas de la época. Para tal efecto, D. Julián Elorza, presidente de la Sociedad de Estudios Vascos, convocó a los dichos directores, más a los cuatro académicos fundadores elegidos ya en el Congreso de Estudios Vascos celebrado en Oñate en 1918. Esta histórica reunión se celebró en la Diputación de Guipúzcoa el 21 de setiembre de 1919. De entre los que participaron en ella el único que aún hoy vive es el Capuchino navarro P. Dámaso de Inza, que votó en calidad de director de la revista u hoja periódica *Irugarrego Prantziskotarra* (el Terciario Franciscano). El P. Dámaso con sus noventa y más años vive actualmente retirado en la enfermería del convento de Capuchinos de Pamplona-extramuros.

Así nació, pues, Euskaltzaindia con mandato expreso conferido por las Diputaciones para encauzar y guiar las cosas de la lengua vasca. Últimamente su autoridad ha sido refrendada y de algún modo consagrada por el Real Decreto de reconocimiento de S. M. Juan Carlos I, de fecha 26 de febrero de 1976.

Euskaltzaindia debía empezar por decidir la ortografía legítima o auténtica a usar en euskara, cosa que hizo pronto y sin mayor dificultad. Seguidamente le aguardaba el arduo problema de la constitución de la lengua literaria común. En los Estatutos fundacionales de 1920 se lee, en efecto:

“Trabajaré preferentemente en la formación de un lenguaje literario unificado en léxico, sintaxis y grafía, que nutriéndose de la savia de todos los dialectos, nos permita disfrutar de una literatura común” (5).

Ya Campión hacía notar que ésta era “acaso, la más grave de las cuestiones que puedan someterse a los debates y sentencia de nuestra Academia” (6).

Esta empresa de la constitución de la lengua literaria común exige su tiempo y aún no está del todo resuelta, pero la Academia no la deja de su mano. Ella sigue pensando que este es un requisito ineludible para que el euskara pueda hacer frente a los problemas que el mundo actual le plantea. Por otra parte, esto no quita que los dialectos literarios tradicionales sigan cultivándose, siempre que se respete la ortografía general y la infraestructura esencial de la lengua (7).

En el periodo que transcurre desde los años 20 al 85 la Academia ha conocido tiempos azarosos y difíciles, pero ha procurado responder al empeño para cuya satisfacción fue creada. En estos mismos días anteriores al de hoy los académicos y los responsables de las Comisiones han estado reunidos en Lecároz con el fin de bosquejar el programa de los trabajos académicos a realizar en los próximos años. Como digo, además de los miembros de número han estado ocupados en esta programación los responsables de las Comisiones de Gramática, Diccionario, Dialectología, Onomástica, Literatura, Bertsolaris, Publicaciones, Biblioteca, etc.

* * *

Pero si la Academia existe por la lengua y está consagrada a su causa, es claro que no se la puede comprender y entender si no se tiene una idea de ésta y de su estado. Por esto creo indispensable decir siquiera dos palabras sobre el particular.

La lengua vasca ha atraído hacia sí el interés y la estima de los lingüistas, que ven en ella el único resto que subsiste en Europa de lengua no indoeuropea y de lengua europea aborigen, una especie de islote que sobrevivió a los avatares de invasiones y oleadas de pueblos, lenguas y civilizaciones y que casi milagrosamente ha llegado viva hasta nuestros días. Ciertamente no ha tenido la suerte de otras lenguas que conocieron brillantes desarrollos literarios y tuvieron fuerza expansiva. Pero su alto valor histórico-cultural está fuera de toda discusión. Baste recordar las memorables palabras de D. R. Menéndez Pidal en discurso pronunciado en Bilbao en 1921:

(5) *Estatutos de la Academia de la Lengua Vasca*, 1920, p. 3.

(6) “Informe Campión-Broussain”, *Euskera* (1922), p. 4.

(7) “Declaración de la Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia: El euskara común, los dialectos y las hablas locales”, *Euskera* (1979), 107.

“Tenéis la fortuna de que vuestro pueblo sea depositario de la reliquia más venerable de la antigüedad hispana. Otras tendrán más valor artístico, serán más admiradas y codiciadas universalmente, pero no hay otra que tenga la importancia de esta lengua, sin cuyo estudio profundo jamás podrán ser revelados del todo los fundamentos y los primitivos derroteros de la civilización peninsular, ni podrá ésta ser esencialmente comprendida” (8).

Por fortuna, la lengua vasca cuenta también con el inestimable tesoro de un pasado literario. Modesto, si se quiere, pero que es un punto de apoyo para subsistir y avanzar. Sin quitar nada de su valor a la poesía y a otros géneros, creo que hoy una lengua que quiera abrirse paso necesita del instrumento de la prosa. Desde el siglo XVI para acá el viejo euskara ha contado con humildes obreros o artesanos que han roturado el campo o han labrado, al menos en parte, el instrumento. La Academia piensa, con razón, que no puede prescindir de ellos, sino que de algún modo la lengua literaria tiene que empalmar con esta tradición, aun con todos los reajustes y puestas al día que haya que hacer.

Consciente de la importancia que ello tiene para el recto encauzamiento de las cosas del euskara, la Academia ha creado la colección “Euskararen Lekukoak” (los testigos del euskara), donde van apareciendo en ediciones actualizadas y enriquecidas con introducciones, notas y vocabularios muchas obras de estos viejos autores que de otra suerte son hoy prácticamente inencontrables.

La Academia está también comprometida, como se sabe, en la elaboración de una Gramática que sea de algún modo la suya. En el Congreso celebrado en Pamplona en setiembre del año pasado se hizo la presentación y aprobación provisional de esta Gramática, que aunque todavía no es completa ni definitiva, va a ver la luz pública en fecha muy próxima.

Está también en marcha la gran obra del Diccionario General Vasco bajo la dirección de los Sres. Michelena y Sarasola, y la realización del Atlas del euskara, viejo proyecto que hasta ahora no ha sido posible realizar, pero cuya preparación nuestra Comisión de Dialectología tiene muy adelantada. Siendo el euskara una lengua de contextura muy distinta de las usuales en el Occidente europeo, si queremos que el Atlas refleje esta originalidad, es claro que poco nos pueden servir los cuestionarios que se han utilizado para confeccionar los Atlas de las lenguas románicas u otras. Había que confeccionar un cuestionario que tuviera en cuenta la idiosincrasia de esta lengua, y así lo ha hecho la Comisión de Dialectología, cuyo presidente es el académico navarro P. Ondarra, profesor de Lecároz, el cual tiene por asesor al también navarro, aunque de Ultrapuertos, M. Jean Haritschelhar, catedrático de la Universidad de Burdeos.

(8) MENENDEZ PIDAL (RAMON), *En torno a la lengua vasca*; Col. Austral 1301.

A la verdad, es una obra titánica ésta de la restauración, pervivencia y puesta al día del vascuence. Michelena ha dicho alguna vez que nuestros antepasados nos han dejado en herencia una carga harto pesada y excesiva para nuestros hombros. Además la Academia no deja de ver que hay muchos ámbitos que desbordan su competencia. Una lengua en las circunstancias en que se encuentra el euskara, a la que disputan el terreno dos lenguas poderosas de cultura, no puede abrirse paso en el mundo actual ni tiene posibilidades de sobrevivir sin un status legal que de algún modo la proteja, si no tiene entrada en la escuela, en los medios de comunicación, en la Administración, etc. Queremos aprovechar esta ocasión para hacer un respetuoso ruego al Gobierno de Navarra en este sentido.

Y puesto que en Navarra se celebra este acto, no estará de más recordar brevisísimamente la parte importante que al viejo reino le ha cabido en la historia literaria de esta lengua. La primera obra impresa en euskara, *Linguae Vasconum Primitiae*, libro de poesías de Bernardo Dechepare publicado en 1545, es obra de un navarro de Ultrapuertos. Y la segunda, la traducción del Nuevo Testamento de Joannes Leizarraga, aparecida en 1571, fue realizada por encargo y publicada a expensas de la reina Juana de Albret. Y el príncipe de los escritores en lengua vasca, Pedro de Axular, que publicó su obra *Guero* en 1643, era un navarro, hijo de la villa de Urdax, que hizo sus estudios en Salamanca cuando aquella Universidad se hallaba en el mejor momento de su historia; que incluso cita a su profesor, Zumel, y a Domingo de Soto, y aunque no le cita, ha manejado también las obras del P. Granada y de otros. Navarro fue también el escritor Juan de Beriain, abad de Uterga, en el mismo siglo XVII; Joaquín de Lizarraga, cura de Elcano entre los siglos XVIII y XIX; el baztanés Bruno Echenique, que ha sido editado por nuestro neo académico Pello Salaburu, y tantos otros que no me es posible citar por no alargarme.

* * *

Toda esta empresa, magna empresa, de la salvación del euskara, la Academia la realiza al margen de toda política. Yo bien sé que esta labor, a los ojos de muchos, se halla como entintada por las salpicaduras políticas. Esto hace que con frecuencia sea incomprendida, y nos coloca a nosotros en una situación difícil. Lo dije muchas veces en el régimen anterior y veo que es necesario decirlo también ahora: el euskara pertenece al tesoro común del pueblo, es un bien de todos, que está por encima de las opciones políticas, que nadie debe apropiárselo en exclusiva ni repudiarlo. En esta línea ha trabajado siempre la Academia y quiere seguir trabajando. Para ello necesita relacionarse con las autoridades, recabar su ayuda etc., siempre con la mira puesta en algo que es de todos, sin engancharse a ideologías ni partidos y respetando el pluralismo político, que es normal y deseable en un pueblo. Sinceramente creo que la politización del euskara a la larga no le hace a éste ningún bien.

Pero esto vale, claro, en ambos sentidos: para los que quieren usufructuarlo en solitario, y para los que por reacción lógica —o ilógica— sienten la

tentación del repudio. Lo que es patrimonio común nadie lo debe ni monopolizar ni repudiar.

* * *

Tampoco puedo en estos momentos dejar de decir una palabra de condolencia y de evocación hacia la figura del viejo académico Pierre Lafitte, que con tanta asiduidad y durante tantos años participó en los actos y sesiones de la Academia y que nos dejó el pasado 23 de febrero (q.e.p.d.). El era el patriarca de las letras vascas en el vecino país vascofrancés. El ha realizado una labor sumamente fecunda y polifacética como profesor de euskara, lexicógrafo, autor de una Gramática muy consultada, periodista, crítico literario, editor de textos, biógrafo de los viejos cultivadores del euskara, etc. Pero no puedo extenderme más, pues por exigencias de nuestros Estatutos debo dejar para la próxima sesión la mención más detallada de los méritos del finado y la apertura del plazo trimestral hábil para la presentación de propuestas para cubrir su vacante.

En este acto se va a proceder, como todos saben, a la recepción de Pello Salaburu en la Academia.

Pello Salaburu es hijo de este pueblo. Tiene 33 años (creo que es, con mucho, el más joven de los académicos). Su hoja de estudios, títulos y trabajos es particularmente brillante. Licenciado en Ciencias Políticas y Sociología, Doctor en Filología Vasca, miembro de varias Sociedades lingüísticas norteamericanas, ha estudiado en Universidades de España y de Norteamérica, ha sido profesor en la Universidad de Deusto y actualmente lo es en la Universidad del País Vasco. Ha ganado diversos concursos y obtenido becas. En la Real Academia de la Lengua Vasca ha trabajado como miembro particularmente activo y eficiente en la Comisión de Gramática. Ha escrito sobre Chomsky, de quien es discípulo. Ha publicado obras sobre el euskara del Baztán, una gramática manual del aprendiz de euskara y la obra en dos tomos sobre Fonología (*Hizkuntzaren soinu egitura* y *Arau Fonologikoak*).

Como véis, Pello Salaburu es ya algo más que una promesa, sin dejar también de ser eso.

Y pasamos sin más al acto de recepción propiamente dicho.

MARIO BUNGE-REN HIZKUNTZALARITZA

Arizkun, 1985-III-31

Pello Salaburu

Jaun andreak, egunon!

Arras gauza guti egiten ditu batek bere bizian behin bakarrik, denek ongi aski dakizuenez. Eskuko behatzekin kontaktzen ahal diren horietako bat, Euskaltzaindian sartzea da, euskaltzaingoa behin bakarrik hartzen ahal bait da, hain xuxen ere. Egia errateko, ezkai honi ez zitzaion burutik ere pasatu halako batean euskaltzain izendatuko zutenik eta hala gertatu zenetik kezka eta beldur pixka batez ere bete nintzen, nere gizartearekiko erantzunkizunaren zamak bertze neurri bat hartu bait zuen egun hartan. Ez dakit, bada, nere baitan paratu duten kofidantzari behar adinako erantzuna emateko gai izanen naizen. Nolanahi ere, ahaleginak egingen ditu.



Koldo Mitxelena eta Pello Salaburu

Kezka guzi horiek haunditu egin ziren nere aitzinean zegoen euskaltzain ezagunak egin zituen lanen berri zehatzagoa izan nuenean, Aingeru Irigarai ospe haundiko gizonaren maila eta neurria ez bait da, ez, erraz ematen. Dakikezueenez, Nafarroako hizkuntza bihotz bihotzez maite zuen guti den bezalako euskaldun zintzo haren hutsunea betetzera heldu naiz, arteka hori modu egokian hornitzeko hilargi zuritan lan egin beharra baldin badut ere. Eta hau erratea ez da batere ahalkea.

Nik baino hobeki ezagutu zutenek diotenez, jende-hartzeko politekoa omen zen bera. Eta diot nik baino hobeki, zeren eta berriki arte uste bait nuen nik ez nuela egundaino ere ikusi. Baina, nonbait, ez da egia: hameka urte nituelarik ikusi nuen behin Arizkungo gaineko eskolan eta erranen dizuet, gainera, zer zela eta suertatu nintzen berarekin. Garai hartan ibiltzen ziren Nafarroako Diputazioako Principe de Vianako ordezkari batzuk eskolaz eskola, jakin nahian herrietako mutiko eta neskatiko koxkor haien artean, zenbat mintzatzeko ziren euskaraz. Eta euskaraz bazekitenei halako diploma bat eskuratzen zieten eta diplomarekin batera, diru-kontu bat edeki ere Nafarroako Aurrezki Kutxan, hiruetan hogeituro inguru edo sartuz. Kanpotik hurbildu zaretanak ez harritu, jakin erazten badizuet Diputazioak ematen zigun ageri hura euskaraz —eta euskara hutsean gainera— eskribiturik zegoela; ongi aski dakit hau, oraino ere etxean bait dut altxatua garai hartan neureganatzeko aukera izan nuen paper horixta hura.

Beti galde egin izan diot nere buruari nor arraio ote ziren Diputazioaren izenean heldu ziren lagun serio haiek: ez dut uste oker nabilen haietako bat Aingeru Irigarai zela baldin badiot. Bigarrena, ez ote zen, bada, gure artean dagoen Jose Maria Satrustegi? Berak erraten ahal du. Beraz, bada, hala suertatzen dira gauzak, 1962ko abenduan, Eguberri egunean ez bazen hortxe hortxe ibiliko zen, ezagutu nuen, hain segur ere, lehenbiziko aldiz.

Euskaltzale bihurtzeko ez da aski izaten euskaraz mintzo den familia baten barnean sortzea edo euskaldunen artean haztea, gertatzen ahal bait da batek euskara erabiltzearen nahitaezko beharra izatea, bertze erremediorik ez duelako. Orduan, bertze aukerarik ez dagoenean, euskararekin batera, hizkuntza hau gorrotatzen ikasteko arriskua izaten ahal da. Ez zen hori, zorionez, Aingeru Irigaraien kasua: 1898. urtean Beran sortu zen, XX. mendean bere itzulia, batek ez dakiela nola, hartu hurrera zuelarik. Gero, Barcelona, Paris eta Alemania aldean egin zituen mediku-ikasketak, ongi ikasiz, bada, hemengo erdaraz aparte, frantsesa eta alemana ere. Euskara, berriz, italtalitik ikasia zuen: Aingeruren aita —Arizkunen mediku izan zena— nahikoa ezaguna zen euskaldunen artean, periodikoetan eta eskribitzen bait zuen “Larreko” ezizena erabiltzen zuela. Euskararekin zuen zaletasuna, bada, bertze gauzak ikasi eta ikusi ondoren, askatasun guziarekin zuen hautatua.

Ez naiz luzetuko sobera nere aitzenekoaren merituen aipamenean: hemen erraten ahal dudak guzia, beti ere, bertzek errana bait du neronek erran dezakedana baino hobeki. Hor daude, konparazione, Satrustegi eta San

Martin-en artikulua euskal aldizkarietan. Xehetasun gehiago nahi duenak, han begiratu beharko du. Erran dezadan labor labor, hori bai, gure hizkuntza hau izan zela Irigaraien kezka haundienetako bat: aunitz gauza idatzi zuen “Príncipe de Viana” eta “Egan” aldizkarietan. “Diario de Navarra” egunkarian ere bazuen, hil arte, euskal orri bat, berarekin bildu zuena hilobira. Idazlan guziok “Apat-Etxebarne” edo “Irular” izen faltsuekin firmatzen zituen.

Aztertu zituen ongi aski zein diren euskararen mugak Nafarroan eta nola ari zaigun joaten hizkuntza hau beti gibelat, pixkaka pixkaka batzutan, salto ikaragarriak eginez bertzetan, baina inoiz ere gelditu gabe, aratze hoberekin ere gertatzen den moduan, arrotza zaigun erdara hau bakarrik utziz aitzinerako.

Orai dela urte bat t’erdi begiak betiko hetsi zituen artio, indarrean zegoen jaun honek, euskaldunen ohiturak, gure aitzinekoek erran zituztenak eta herri haundi nahiz ttalletan biltzen zituen kontuak ederki utzi zizkigun paperetan paratuak, iduri bait zuen nekeak ez zuela pisurik gizon harendako. Hor ditugu, lekuko, euskal artikuluez aparte, liburuetan ere erdaraz —euskaraz ez dakitenei begira— eskribituta utzi zizkigunak: *Geografía Lingüística de Navarra* eta *Noticias y viejos textos de la “Lingua Navarrorum”*, bertzeak bertze. Gera bedi, bada, erran dudan guzi hau, nekez atzunduko dugun ospe haundiko euskaltzalearen oroimen koxkor moduan. Eta utz bedi honela, hitzik bihozkorrenekin, Euskaltzaindia eta haren arteko eztabaidak azkeneko urteetan, beroaldien ondorio aunitzetan, ongi ezagunak badira ere. Badugu non eta norengandik ikasi, dudarik ez. Eta Aingeru Irigarai ez da batere erakusle txarra.

Berehalaxe ikusiko duzuenez, egun honetako hautatu dudan solas-gaia ez da Euskaltzaindiko hitzaldi-sarreretan normalean hartzen denetakoa. Ez naiz literaturako kontuez ariko, ez eta filologiaz ere, aunitzetan ohi izan den bezala. Patxi Altuna euskaltzain izendatu zutelarik, Koldo Mitxelena oroi erazten zizkigun Homeroren ametsaren atea eta Xenpelar harturik lagun, baita zeruarenak ere. Bi ate omen ditu lehenbizikoak eta hamabi, berriz, bigarrenak. Euskaltzaindiak ere bi ate bertzerik ez omen du, nonbait: lan kreatzaila eta filologilana edekitzen dituenak, hain xuxen. Hona hemen, bada haren hitzak: “Hain gauza erabakia ote da Euskaltzaindiaren atarian zabalik dauden atea bi bakarrik direla?” Iduri du, orduan, nere sarrera honekin ez zaigula betetzen Mitxelena irakaslearen errana, ez bait dut nik ate horietako bat bakarren giltza ere bueltatu. Arras zaila izanen litzateke zuzen asmatzea zenbat ate dituen ametsak eta zaila, halafede, S. Pedrok zaintzen omen dituenak kontatzea. Hala ere, erraten ahal da Euskaltzaindiak aipatu diren bi ate horiek baino gehiago ere badituela: norbaiten ustez, hirugarrenak ez baldin badu ate aroso baten neurria ematen, zirritoa gutienez, bai, badela erran daiteke. Hortxetik, zirrito horretarik sartu naiz ni, antza. Hortaz, bada, erran beharra da lan hau eta aspaldi honetan egin ditudan bertzeak ere ez direla filologia edo literaturaren barnean sailkatzen. Lan honi paratu diodan izenak berak ere —*Mario Bunge-ren hizkuntzalaritza*— ez dio aunitzi deus erranen,

entzulegoaren artean zenbaitek ez bait daki hizkuntzalaritza linguistikari erraten zaiola alde batetik eta segur bait naiz, bertzetik, gehientsuenok ez duzuela inoiz ere aditu Mario Bungerezen izena. Gaia, bada, linguistikarekin lotzen da eta hau erratean, burura heldu zaizuen lehenbiziko pentsamendua kendu nahiko nizueke, saltsotan ez daudenek berehala pentsatzen bait dute hizkuntzalaria dela hizkuntza aunitz dakiena. Baina hori ez da nahi eta nahi ez horrela suertatzen, hizkuntzalari aunitzek, munduaren zabaleran, beren amahizkuntza edo hizkuntza ama aztertzen pasatzen bait dute bizia, nola diren kontuak.

Euskaltzaindiaren elkartekide izendatzen minduten garai berean argitaratzen zuen Mario Bunge filosofo eta zientzialari ezagunak, gaur egun hizkuntza kontuetan indarrean dagoen korrante baten kritika egin nahian edo, uste baino arrakasta eskasagoa —ez dut inon ere ikusi aipaturik— izan duen eta gaur zuen aitzinean berrikusi nahiko nukeen idazlan bat. Liburuaren izena: **Linguística y Filosofía**; liburuaren gaia: Noam Chomsky hizkuntzalariren teorien aurkezpena eta kritika, sarreran dioenez. Nahiz eta liburua bera nahikoa txikia den, ez da aipatu dudan aurkezpen eta kritikara mugatzen eta horrela, hantxe agertzen diren lerroak direla medio, Bungek berak hizkuntzalaritzari buruz dituen iritziak eta iduriak ezagutzeko aukera ere ematen zaigu, liburuaren orrialde aunitz horretaraxe zuzenduak bait daude. Erraten ahal da, bada, hasieran aurkezten dituen helburuak —10. orrialdean dio hizkuntzalari sortzaileek plazara dituzten metodologi eta filosofi arazo zenbait aztertu nahiko litzuzkeela— gainditurik gelditzen direla liburuaren irakurketa amaitu orduko.

Ez dut deus ere erranen hemen Chomsky-ri buruz, haren fama inguratzeko gaituzten paretotara oraino ailegatu ez bada ere, Estatu Batuetako amerikar hau bait dugu momentu honetan hizkuntzalari ezagunenetako bat eta berak idazten dituen lanak bait dira munduan gehien nabarmentzen diren horietakoak. Larderia gogorrekoa dugu bera, eta argentinarrak eman nahi izan dion zafraldiak ez du norabaiteratua utzi, ez pentsa.

Hori dela eta, mintzaldi hau Bungerezen liburu honen irazkina egiteko probetxatu nahi dudanez, bi kontu berezi nahi nituzke hasiera hasieratik: alde batetik, liburuan dago Bungek ematen duen Chomskyren teorien interpretazio pertsonala eta arront eztabaidagarria; bertzaldetik, Bungerezen beraren iritziak eta teoriak, haren ustez nola antolatatu beharko litzatekeen hizkuntzaren ikerketa eta horrelakoak ere aunitzetan aurkitzen dira. Nere azterketaren gaia, aldeztetik diot, lehenbiziko puntura mugatuko da, bertzea ere bildu nahi izanez gero lan hau ikaragarri luzatuko bait litzateke. Baina hasi baino lehenago erran dezadan hitz pare bat Mario Bungerezen gainean.

Filosofiaz eta, batez ere, zientzia-filosofiaz arduratzen direnen artean aspaldiskotik ezaguna da: Zientzia Fisiko-Matematiketan Doktore, fisika eta epistemologiaren oinarrietan espezializatu da; ehundaka lan eta liburu baditu argitaraturik eta Buenos Aires, Mexico, Pennsylvania, McGill University eta bertze zenbait Unibertsitatetan erakutsi du; mundu guziko hainbat eta hain-

bat elkarte eta erakunde zientifikoren elkartekidea da eta berritsuki Principe de Asturias Saria ere bereganatua du. Horrela, fisikaren filosofiaz, epistemologiak, materialismoaz eta abarrez idatzi du eta, neronek ezagutzen ditudan lanen artean baten bat aipatzekotan *La investigación científica* (ikus bibliografia) seinatu beharko nuke: liburu mardul honek biltzen bait ditu, antza denez, ordu eta urte luzeen ikerlanek eman dituzten ondoreak eta berau bait da, bertze batzuen artean, ikerlanak egin nahi direnean, eredutzat jo beharko genukeen horietako bat. Oraingoan, garatu duen epistemologia hori hizkuntzalaritzan egiten den lanari ezarri dio, zientzi-ortodoxia betetzen ote duen edo ikusi nahirik. Ez da zuzenean bere espezialitatekoak izan daitezkeen gaietatik urruntzen den lehenbiziko aldia. Bertze lanetan ere (ikus, adibidez, Bunge 1980) eginak ditu horrelakoak, fisika, biologia, psikologia, gizarte zientziak e.a. aztertuz. Batek galde diezaioke bere buruari nola izan daitekeen honenbertze eta, itxuraz soilik, hain diferente diren gaiet buruz, beldurrik gabe idaztea: seguraski, berak eskribitu duen liburu baten eskeintzan (Bunge, 1980) aurki dateke, agian, erantzuna, honela definitzen bait du bere aita: “Médico, primer higienista social de Latinoamérica, sociólogo, legislador, adalid de causas populares y democráticas, profesor, periodista y poeta”. Badakigu: “beliak, bera bezalako umiak”, hurbil hauetan maiz erraten den bezala.

Gaiarekin zuzenean hasi aitzinetik ikus dezagun nola dagoen antolaturik *Lingüística y Filosofía* izeneko liburua: sarreraren ondoren, Chomskyk garatu duen teoriaren tesi nagusiak laburbiltzen saiatzen da egilea bigarren kapituluak eta, gainera, gero ateratzen dituen konklusio zenbait aurreratzen ditu hemen. Hurrengo kapituluetan gramatikaren bi ardatz nagusi ukitzen ditu (sintaxia eta semantika, hain zuzen) bertze bi kapitulu eskeiniz segidan hizkuntzalari sortzaileak kezkatu izan dituzten bi gai nagusiri: hizkuntzaren unibertsalak eta hizkuntzaren ikasbidea edo hazkuntza, h.d., jakin nahi da, azken batean, nola hazten den hizkuntza gure baitan. Azkeneko kapituluetan hizkuntzalaritzan egin beharko lirakeen ikerlanen izaera eta hizkuntz-teoria egokiak garatzeko hautabideak eztabaidatzen dira. Aipatu kapitulu horietaz aparte baditu liburuak bertze hiru eranskin, alde aurretik irakurlekoaren begien bistan agertu diren zenbait kontzeptu hobeki argitzeko asmoekin emanak. Bungerean gainerako lanekin gertatzen den moduan, liburu argia da, errez eta arinki idatzia, baietzapenak ez bait dira zehar-meharka agertzen oso osoan eta zuzen zuzenean baizik eta horrexek ematen dio liburuari eztabaidagarri bihur daitekeen zerbaiten aitzinean gaudelakoaren halako kutsu berezi hori. Baina horrexek bete erazten du, baita ere, kontuan hartua izateko merituak egin nahi dituen edozein liburuk bete beharko lukeen oinarriko baldintza: edonoren alde nahiz kontra erraten dugun zerbait hori argia eta zehatza den neurri berean gezurta daiteke, faltsa daiteke (bertze zientzia-pentsalari ezagunaren hitzak erabiltzeko) eta hori, halaxe diote zientzialariek, aitzin pausatzat jo behar da. Hauxe dugu, hain zuzen ere, Mario Bungerei eskertu behar zaion lehenbiziko puntua. Argi dago, bertzaldetik, ez dela erori Bunge Chomskyren hainbertze eta hainbertze irakurle erori diren zulo berean eta ederki berezi dituela berak zein diren teoria honen aztergai nagusiak. Ez dugu

irakurriko liburuan, adibidez, Chomskyk liburuz liburu aldatzen duela teoria, bere burua hizkuntzalaritzat jotzen duen bat baino gehiagori iduritu eta iduritzen zaion moduan. Hori ere aipatu beharra dugu Bungenen alde, ezin hobeki ikusi bait du hizkuntzalaritza sortzailean hasiera hasieratik gaur egun arte badela halako hari gidari bat, teoriaren axalean aldaerak behin eta berriz suertatzen badira ere.

Halaz guztiz, aipatu nahiko nituzke hemen liburuaren azterketa zehatzagoa pasatu aurretik, bigarren mailako diren bi puntu, biak ere Bungenen kaltetan: alde batetik, erabiltzen duen bere-ustezko estilo harroa (ikus hemen 1. Eranskinean bildutako aipamenak); bertzaldetik, hau ere estilo kontua dateke, bertzeren iritziak ematen direnean ez daki batek non hasten diren Bungenenak, nahasi egiten bait dira aunitzetan teoriaren aurkezpen hotza eta egin nahi duen kritika (ikusi, konparazione, 41. orr.). Baina huskeriak huskeria, badira aipatu beharko liratekeen funtsezkoago diren puntuak eta horietara itzuli nahi dut berehala. Zerrendatuko ditut horretarako lehenik zein diren Chomskyren teoriaren tesiak nere interpretazioan, eta aipatuko ditut gero Bungenen huts eta gaizki ulertzerik handienak, beti ere berak egiten duen interpretaziora mugatzen dudalarik lana. Ez dut eztabaidatuko hemen Bungenen teoria, Bungek Chomskyri buruz egiten duen interpretazioa baizik, muga irristakor hori ahal dudanean ongi zainduz. Errateko guziak aipamenekin lagunduko ditut, baina batzutan beldur naiz, ordea, aipamen horiek sobran ez ote diren, hain dira oinarrizkoak Bungek egiten dituen interpretazio-hutsak, ederki gostarik eginak badira ere.

Chomskyren teoriaren tesi nagusiak

CH.1. Giza-espezieak hitz egiten ikasten du eta, bertze zenbait gauzaren artean, horregatik bereizten da gainerako animalietatik. Giza-espeziekoak ez diren animaliek ez dute mintzorik (loroek ahozkatzen dituzten hitzek eta, hainbertze ere hainbertze esperimendu egin ondoren zenbait primatek —ikus, hemen, Lancaster (1975), Altmann (1962, 1965, 1968), Jolly (1972) eta, batez ere, Premack (1978, 1980) ikerlarien lanak— garatu dituzten komunikazio-sistemek, hala nola erleek eta xoriek elkarren artean solas egiteko erabiltzen dituzten sistemek (ikus Akmajian eta bertze 1979), ez dute zeri-kusirik lengoia edo hizkuntza deitzen dugun sistematasunaren konplexutasunarekin), komunikaziorako garatzen dituzten sistemak arras elementalak direlarik, eta neurri horretan, zientzialariek nahikoa errez deskribatzen dituzte. Ez da horrelakorik gertatzen giza-hizkuntzarekin.

CH.2. Gizarte, arraza, talde eta herri guzietako haurrek, baldintza sozial arrotak ematen diren bitartean, epe mugatu batean abiatzen dira solasean. Hizkuntza hori, gainera, eragikorra da eta gerta daitezkeen baldintza berriei behin eta berriz egokitze gaitasuna erakusten du. Hizkuntzaren erabilera ez da, hortaz, mekanikoa edo automatikoa, eragikorra baizik, Descartes eta bertze pentsalari aunitz ongi aski konturatu zirenez (ikus Chomsky

1966). Horrexegatik uler daitezke lehenbiziko aldiz entzuten diren erranaldiak eta inoiz ere erran ez diren gauzak ere ahozkatu.

CH.3. Esperientziaren datuak ez dira nahikoak hizkuntza ikasteko, mintzatzen ikasteko:

a) Esperientziak ez digu —zuzenean behintzat— erakusten zein den perpaus batean txerta ditzakegun mendeko perpausen kopurua. Ez digu erakusten, adibidez, erlatiboazko zenbat perpaus kateatzen ahal ditugun bata berztearen ondoren, e.a.

b) Behin hizkuntza ikasi ondoren, nahikoa arronta da hutsak egitea eleketan. Ez ditugu ematen erranaldiak biribil biribilak, baizik eta moztuak, erdi-purdizka, e.a. Saiatzen bagara magnetofoi baten bidez biltzen elkarrizketa bat, arras zaila izanen zaigu hor agertzen diren erranaldiak gramatika aldetik aztertzea, zeren eta, stricto sensu, perpaus horietako aunitz eta aunitz ezgramatikalak bait dira. Ohar gaitezen hizkuntza ikasten ari denak ez dakiela zein diren, entzuten dituen guzi horien artean, gaizki erraten diren erranaldiak. Ez jakiteagatik, ez daki ez eta gaizki erraten diren ere. Hala ere, hitz egiten ikasten du eta itxurazko zailtasunik gabe, gainera.

c) Euskaraz eta bertze hizkuntza aunitzetan hitzen hurrenkera edo ordena nahikoa askea da eta perpausaren barnean lekuz alda daitezke. Nola-nahi ere, aldaketa horiek muga batzuen barnean gertatzen dira beti:

(1) *Patxikok erran du zakurra bidetik etorri dela*

Perpaus horretan hitz aunitzen ordena aldatzen ahal da gramatikaltasunari kalterik egin gabe. Honako perpaus hau, ordea, ez dugu gramatikala:

(2) **Etorri dela bidetik, zerria erran du Patxikok*

Iduri du hizkuntzaren barne-logika eta adiera galtzen ez diren neurrian bakarrik truka daitezkeela hitzak eta ordena aldatu. Baldin logika hori hausten bada edo erranahiaren zentzua aldatzen, hiztunak ez du perpaus berri hori onartuko. Baina, hona hemen argumentazioaren indarra, badira logika desegin gabe eta erranahia ere aldatu gabe egiten ahal diren aldaketa aunitz eta hiztunak ez ditu *sekula* ere egiten, hau da, logika eta erranahi aldetik arrot onargarri diren perpaus aunitz sor ditzake hiztunak, baina ez ditu inoiz ere erraten eta, gainera, hori ezin duela egin ez dio inork ere erakusten. Antzaenez, fenomeno hau hizkuntza guzietan suertatzen da. Hemen ez dut adibiderik emanen argumentazioarekin segitzeagatik baina 2. Eranskinean (321. orr.) ikus daitezke zenbait argibide. Ikus, baita ere, Lightfoot 1982.

Haurrak hizkuntza ikasten duenean garatzen dituen ezagutza sistemen, propietateen, ezaugarrien eta berak izan duen esperientziak erakusten dituen ezaugarrien artean hutsarte haundi bat dago: hutsarte honen esplikazioa izan liteke pentsatzea sortzetik daukala haurrak hizkuntza ikasteko gaitasuna edo "hizkuntz gaitasuna". Bertzenaz, arrot zaila izanen litzaiguke fenomeno hau azaltzea eta guregandik kanpo dauden indarretara jo beharko genuke argi bila.

CH.4. Gure artean komunikatzeko erabiltzen dugu hizkuntza, bihotza ere zainetara odola igortzeko erabiltzen dugun moduan. Horrek, ordea, ez du erran nahi hizkuntza eta komunikazioa gauza bera direnik: alde batetik, komunikabide diferenteak ere ezagutzen ditugu gure artean (keinuak, ixilu-neak, nigarra, irria, ospakizun sozialak, e.a.) eta, bertzetik, hizkuntza erabiltzen dugu aunitzetan jakinaren ganean ez dugula deus ere komunikatzen eta gure pentsamendua adierazteko erabiltzen dugula. Baina azkeneko kontzeptu hau komunikazioarena baino zabalagoa da eta harekin bat egiten baldin badugu “komunikazioa”-ren adiera hustu egiten dugu: norbaitek bere buruari zerbait erraten dionean, ez du deusik komunikatzen (ikus Chomsky 1975, 52 eta 1979, 88).

Nolanahi ere eta komunikazioa balitz hizkuntzaren funtziorik nagusia ere, komunikazioa-hizkuntza bikotearen arteko harremanak atzendu gabe, metodologikoki ongi bereiz daitezke biak eta berezi ere egin behar, hizkuntzaren natura eta egitura ikertu nahi izanez gero: hizkuntz gaitasunaren egitura bere aldetik estudiatu behar da, biologo batek bihotza ikertzen duenean anatomia (bihotzaren egitura) eta fisiologia (bihotzaren funtzioa) bereizten dituen bezalaxe. Hizkuntzalariak ere, neurri batean, hizkuntzaren “anatomia” aztertu behar du.

CH.5. Hizkuntza ez du, jakina, “hizkuntz gaitasuna” deitu dugunak bakarrik osatzen eta sistema aunitzen elkarreragiketaren ondorioa dugu: sinesmenak, pertzepzioa, memoria, munduarekiko ezagutza, e. a.. Sistema horiek beren lege propioak dituzte, hizkuntz gaitasunarekin zuzenean erlazionatzen ez direnak eta, beharbada, sistema horiek badituzte ere beraien gaitasunak, sortzetik eta inork erakutsi gabe, emanak. Beraz, bada, bi gauza berezi behar dira: lengoia eta hizkuntz gaitasuna. Azken honi gramatika deituko diogu eta, hortaz, *lengoia* (edo hizkuntza) eta *gramatika* desberdinduko ditugu, lehenbizikoa bigarrena baino aunitzez zabalagoa delarik, eman ditugun arrazoiaren arauera. Iduri du hizkuntzalariaren lana dela gramatika —edo, hizkuntz gaitasuna— aztertzea, nahiz eta horrek ez duen erran nahi soziolinguista batek egiten duena ez dela hizkuntzalaritza (ikus Chomsky 1979, 54. orr.), baina azken honen lanak esplanatorioa —eta ez deskribatzailea bakarrik— izan nahi duen neurrian, aise konplexuago gertatzen da, sistema bat ez, baizik eta sistema aunitzen elkarreragiketa estudiatu behar bait du. Arrazoi horregatik hizkuntzalari sortzaileak hizkuntzaren gramatika zehazten saiatzera mugatu dira (Chomsky 1981).

CH.6. Gramatikan hiru osagai bereizten ditugu: osagai fonetikoa, sintaktikoa eta logikoa (ikus beheitiago) eta anbiguetate jakin eta ezagunarekin erabiltzen du Chomskyk kontzeptu hau, erranahi guzi hauek dituelarik:

a) Hizkuntz gaitasunaren egitura. Inork ere erakutsi ez digun horren egitura. Gramatika Unibertsala deitzen zaio honi. Ikus CH.7.

b) Hizkuntz gaitasunaren egituraren modelua. Hizkuntz gaitasun Unibertsal horren berri eman nahi dugunean, bide diferenteak erabil ditzakegu,

eredu diferenteak proposatuz. Eraiketa teorikoa dugu hau eta honen izena ere Gramatika Unibertsala da.

c) Gramatika Unibertsala giza-gogoan inprimaturik dago eta ezin deza-ke hiztunak bere baitarik baztertu. Zentzu horretan erraten dugu GU gizaki guzietan dagoela aurkezturik, benetazko zerbait dela.

d) Edozein hizkuntza naturalen osagai linguistiko hutsaren (aipatu ditugun bertze sistemetatik berezirik) egitura. Gramatika partikularra deitzen dugu haatik.

e) Egitura horren modelua: euskara edo gazteleraren gramatika bakar hori (egitura hori) deskribatzeko, gramatika diferenteak (modelu desberdinak) proposa daitezke, eraiketa teorikoak eginez.

f) Behin hiztunak hizkuntza ikasi ondoren, hizkuntza horren gramatika haren gogoan dago aurkezturik eta, hori dela bide, hizkuntza horretako per-paus gramatikalak eta ez-gramatikalak bereizteko gai da. Lan hau egin deza-ke argibidez (hizkuntzalariak egiten duena) nahiz ohargabeki (ofizioko ez direnek egiten dutena), Chomskyren lanetan ikus daitekeenez (1980, 4).

CH.7. Eman ditugun adibideetan ikusten denez (2. Eranskina) espe-rientzia ez da nahikoa hizkuntza ikasteko. Ikasketa horretan bada zerbait sortzetik heldu dena: hori da, hain zuzen ere, Gramatika Unibertsala. Gramatika Unibertsala ez da ikasi beharrik, heredatu egiten bait da eta giza espe-ziearen genotipoan kodifikaturik bait dago. Horretaz aparte, jakina, espe-rientzia ere behar da: oihanean biziko balitz haurra bakar bakarrik ezin izan-n luke solasean ikasi. Esperientzia da, bada, beharrezko baldintza baina ez nahikoa eta GU-arekin ere antzera suertatzen da. Biak elkarturik, ordea, ditu-gu baldintza beharrezko eta nahikoak. Esperientzia hori bizitzaren lehenbizi-ko urteetan gertatu behar da.

Gramatika partikularren guneak GU-ak markatzen duen bide hertsian eraikitzen ditu haurrak, hizkuntza bere baitan hazten den bitartean. Hizkuntz gaitasunaren mugak, bada, GU-ak markatzen ditu eta esperientziak ez ditu muga horiek hausten ahal. Programa genetikoan bada, hortaz, parte egituratu eta aldaezina (agintzen duena) eta alda daitezkeen bertze bat ere (geneek “utzi” egiten dute), Jacob-ek bezala errateko. Hori dela eta, 2. Eranskinean paratu ditugun adibideen ez-gramatikaltasuna, GU-ak esplika lezake agian. Gramatika partikularrak aldatzen ahal dira eta ezagutzen ditugun hizkuntzen gramatikak posible izan daitezkeen guzi horietako parte tiki bat bertzerik ez dira, beti ere muga jakin —baina asmatu behar diren— horien barnean bil-duak, hizkuntza batetik bertzera aldatzen direlarik. Hizkuntza beraren bar-nean ere aldatzen da gramatika eta hori ikerketa diakronikoen bidez ikus dai-teke, hizkuntzaren historia aztertuz.

Heredentzia onaturik eta esperientziaren beharra ere —hiztegia ikaste-ko, adibidez— ikusirik, errezagoko konprenditzen ahal dugu zergatik eta nola ikasten duen hain laster hizkuntza haurrak eta nola den gai hizkuntzaren eza-

gutza sistema konplexu hori garatzeko. Gainerako gorputz-organoekin ere gisa honetara gertatzen da: haurrak ez du “ikasten” nola sortu behar dituen besoak, hau bere kode genetikoan bait dago ezarririk. Esperientziaz baliaturik (elikadura, konparazioe), besoak hazi egiten dira eta esperientziak fenotipo diferentea garatzen du batetik bertzerara, hizkuntzetan bezalatsu.

Gramatika Unibertsala garapen ontogenetikoaren ondorioa da eta giza-bilakabidean gertatutako emergentzia horietako bat (ikus Popper-Eccles 1980). Hortaz, gizakia ezaugarritzen duen tasuna da, lehenago erran den moduan.

CH.8. Hizkuntz-gaitasuna “gogoaren” organoa da, bihotza eta besoak “gorputzaren” organoak diren bezala. Baina, zer da “gogoa”? Erran dezagun, hasteko, gogoa eta burmuina ez direla bi gauza diferente (Chomsky 1979, 81. orr.) nahiz eta berak, teoriaren aurkezpen argiagoa egin nahiak eramanik, bereizten dituen. Argi dago, biologiaren ikuspuntutik, burmuinak bere egitura “materiala” duela eta gaur egun neurobiologoak arduratzen direla egitura horren azterketaz eta neuronon funtzionamenduaz. Hizkuntza, jakina denez, burmuina eta bertze organo aunitzen lanaren (zintzurra, birrikak, belarria) ondorioa dugu. Hizkuntzaren gramatikak —edo, bertze hitzetan paratze-ko, inork ere erakutsi ez digun gaitasun horrek— ere badu bere egitura, noski, eta erran daiteke egitura honen elementuak (arau sintaktikoak adibidez) burmuinaren memorian daudela metaturik eta horrexegatik badugula mintzoa. Badirudi, halaz ere, eta nahiz eta arau sintaktikoak burmuinean “dauden”, ez dela neurobiologoaren eginkizuna arau sintaktiko horiek behar bezala zehaztea eta nola formaliza daitezkeen erakustea. Hori hizkuntzalariaren (hizkuntzalari psikologo fisiologiko bihurturik) lana dugu. Chomskyk aipatzen duenez, aski interesgarria litzateke ikustea nola suertatzen diren eragiketa horiek neuronetan (in Piattelli-Palmarini 1980, 263. orr.). Azterbide bat izan liteke, erraterako, begiratzea ea gramatikaren osagai diferentek ere leku diferentetan aurkitzen diren burmuinean: afasiek eta eman liezagukete argia kontu honetan. Akmajian eta bertzek (1979, 323. orr. eta jarr.) hauxe bera seinalatzen dute. Nolanahi ere ez dago a priori-rik “gogoa” eta “gorputza” bi modu diferentetara ikertzeko eta bietan premisa biologiko berekin jokatu behar dugu.

CH.9. Sortzetik dugun Gramatika Unibertsalari esker (ahalbidezko hizkuntzak mugatzen ditu eta espeziearen genotipoan dago) eta esperientziaren datuez baliaturik hitz egiten ikasten dute haur guziek, ezagutza sistema konplexu bat garatuz. Erratan dugu konplexua dela, arront zaila bait zaigu ezagutza hori formalizatzea eta ezagutza hori agintzen duten legeak behar bezala zehaztea. Baina, jakina denez, ezagutza hau ez da gizakia karakterizatzen duen bakarra eta bertze ezagutza sistemak ere garatzen ditugu, hala nola, ikusmenarena, eragiketa logikoak egiteko gaitasuna, mugimendu koordinatua eta bertze aunitz. Zenbait eskolak (batez ere Piaget eta Ginebrarrak aipatu behar hemen) mantentzen dute ezagutza guzi horiek batera garatzen ditugula eta sentimen-motorezko gaitasunei esker, haurrak gero eta aberatsago diren ezagutza sistemak eraikitzeke gai direla. Piaget-en ustez, bada “gogoa” (edo

“burmuina”, bertze ikuspuntu batetik) ez da modularra eta garatzen dituen ezagutza sistemak erlazio hertsian daude.

Chomskyk uste duenez hau ez da honela gertatzen: argi dago ezagutza horien artean badirela erlazioak —bihotza eta gibela ere erlazioan daude, dudarik ez— baina sistema guzi horiek autonomoak dira —bihotza eta gibela ere autonomoak diren neurrian— eta horregatik, independienteki ikertu eta estudiatu behar dira, bakoitzak bere egitura propioa bait du. Gaur egun ez dago daturik hizkuntz gaitasuna eta mugimendu koordinatua, konparazioe, printzipio berak agintzen dituela pentsatzeko. Hizkuntz datuek erakusten digute hizkuntz gaitasuna baldintzatzen duten legeek ez dutela parekorik gainerako sistemetan. Horregatik erran daiteke burmuina modularra dela. Gorputzaren organoak autonomoak diren moduan, gogoarenak ere autonomoak ditugu.

CH.10. Behin onartuz gero hizkuntza natural guziak printzipio unibertsal zenbaiten azpian biltzen direla, printzipio horiek edo gramatika unibertsala formalizatzeko bi bide segi daitezke:

a) Hizkuntza bat hartu eta hizkuntza horrek aurkezten dizkigun datuetatik haratago jo, hizkuntza horren lege partikularrak eta hizkuntz gaitasunaren legeak bereziz. Azkeneko hauek hizkuntza guzietan ageriko dira. Lehenengoak, ordea, hizkuntza horretan bakarrik, nahiz eta lege orokorrek markatzen dituzten mugak ezin diren hautsi.

Sistema honek duen eragozpena da aunitzetan lege orokorrak ikusteko arriskua dagoela, lege partikularrak dauden tokian. Oso zaila gertatzen ahal da batzuk eta bertzeak bereztea.

b) Hizkuntza aunitz hartu eta elkarren artean erkatuz, lege orokorrak eta unibertsalak atera. Honek ere badu, ordea, bere eragozpena: azaleko antzekotasunetan gelditi gaitzke eta zenbait hizkuntzalarik azaleko antzekotasun hauek deitzen dituzte hizkuntzaren unibertsalak (Chomsky 1982, 111).

Hizkuntzalariek bide bat nahiz bertzea hautatzen ahal dute baina, dituzten mugak ezaguturik, biak hartzea litzateke egokiena. Ohar gaitezen lege horiek oso abstraktuak direla eta ez ditugula berehalakoan aurkituko. Lege horiek edo gramatikaren formalizazio egokiak proposatzeak hizkuntzaren teoria formalizatzeraz garamatza. Ikus, dena dela, **B 6** puntua beheitiago.

CH.11. Hizkuntza bat nahiz aunitz hartzen ditugun aztergai, metodo hipotetiko deduktiboak erabiliko dira: honegatik, itxuraz legeen kontra daudekeen datuak bazter daitezke eta horrek ez gaitu kezkatu beharrik (Chomsky 1979, 107 eta 188). Ohargabeki ezagutzen dugun Gramatika Unibertsala formalizatzeko hizkuntza partikularretako datuak erabili behar ditugu eta hau egitean, nola hautatu eta nola berezi datu onak eta txarrak? Perpaus gramatikalak ez dira *interpretatu daitezkeen* perpausak, errez interpretatzen ditugun perpaus aunitz ez bait dira gramatikalak; ez dira norbaitek eman dituen *arau normatibo*en barnean sartzen direnak, hizkuntza aunitzetan ez bait dago

ageriko arau normatiborik; ez dira *estatistikoki* errateko edo entzuteko gerta-kortasun handiago duten perpausak, hainbertze aldiz erraten bait ditugu inoiz ere erran ez diren perpausak; ez dira, ez, corpus batean bil daitezkeenak: halako testu zati hau halako hizkuntzaren aurkezpen fidagarria dela diogunean, ohargabeki erabili dugu gure ezagutza eta gaitasuna corpus hau, eta ez bertzerik, aukeratzeko. Ez dugu aukeratzeko corpus bat eta hizkuntza horrek izan ditzakeen legeak handik deduzitu; ez, corpusa hautatzen dugu bai bait dakigu hizkuntzaren legeak betetzen dituela. Informazioa, orduan, hiztunaren baitan aurkitu behar da. Metodo hau ez da, bada, enpirista, datu enpirikoak erabiltzea nahi eta nahiezkoa baldin bada ere.

CH.12. Gramatikaren osagai nagusienetako bat sintaxia dugu eta automoki iker daiteke berau. Sintaxiaren ikuspuntutik gramatika arau sistema dela erran daiteke: honela, sintagma guneez leku hau edo bertze hura hartzen dute sintagmaren barnean, ahalezko leku horiek ere nahikoa mugaturik daudelarik GU-ari esker. Erran daiteke, baita ere, perpausetan kategoria zenbait lekuz truka daitezkeela toki batzuetara bai baina bertzeetara ez, ondoko adibide hauetan ikus daitezkeenez:

- (3) *You saw the man*
 (4) *Who did you see—?*
 (5) **Did you who see—?*
-

Gramatika Unibertsalak gero eta hertsiago diren aukera hauek zehazten dizkigu:

- a) Hizkuntza naturaletan mugimendua gerta daiteke ala ez?
 - b) Gerta baldin badaiteke, edozein kategoria mugi daiteke?
 - c) Kategoria jakin bat mugi baldin badaiteke, edozein lekutara mugi daiteke?
- e.a.


Hautabideak ditugu, ikusten denez, eta hori teoria simple bat dela medio formalizatzea aurrerapausu haundia izanen litzateke. Erran dezadan, bide batez, perpaus batean zerbait “mugitu” bada, perpaus horren eratorpenean bi (edo gehiago) egitura edo analisi maila bereizten direla: horri deitu ohi zaio “sakoneko” eta “azaleko” egitura.

Baina gramatika ez da hori bakarrik. Gramatika dugu, baita ere, Printzipio-sistema bat eta printzipio soil batek esplika ditzake, aunitzetan, itxuraz arras diferente diren datuak. Printzipio berak (X-barraren sistema) azaltzen digu zein den sintagmen barneko osagaien egitura eta zergatik gertatzen diren azaleko desberdintasun ikaragarri horiek hizkuntza batetik ber-

tzera. 2. Eranskinean eman ditudan adibideak ere Printzipio abstraktu batek azal ditzake eta berdin suertatzen da honako adibide hauekin:

(6) *Nire semea mendira joaten da*


(7) *Nora joaten da nire semea —?*



Halaz guztiz, ezin egin ondoko hau:

(8) *Nire semea mendira eta hondartzara joaten da*

(9) **Nora joaten da nire semea mendira eta —?*



(ikus hemen 3. Eranskina. Ohar gaitezen, dena den, adibide guziak perpausak direla eta termino hau definitu gabe utzi dugula, teoriaren lehengaita bait da).

CH.13. Erranahia da gramatikaren bertze osagai nagusi bat eta osagai honen barnean bereziki aipatu behar da hiztegia deitzen duguna. Hiztegiarekin erlazionatzen dira zuzen zuzenean linguistikoak ez diren bertze sistema aunitz: sinesmenak, munduarekiko ezagutza, e.a. Irakasle batek, militar batek edo apez batek, hiritarrak edo herritarrak, langileak edo lantegiko nagusiak erabiltzen duten hiztegia diferentea da. Hitz kopuru mugatuak osatua, talde sozial batetik bertzera edo toki batetik bertzera errez aldatzen da, bakoitzaren munduarekiko esperientzia ere diferentea dugulako. Beraz, bada, osagai hau ulertzeko eta azaltzeko sistema aunitzen azterketa xehea egin beharko genuke, nahiz eta gauzei izena emateko eta, arau semantiko unibertsalak erabiltzen ditugula ematen duen (ikus, erraterako, Russell 1961 eta Chomskyk honetaz dioena in Piattelli-Palmarini 1980, 139). Bertze kontu bat da nola antolatzen ditugun hitzak: haurrak “ikasi” behar ditu —gero ere, ez dira horrenbertze- baina sistema Unibertsal batez baliaturik ordenatzen ditu (X-barra) sintagmetan eta perpausetan.

Halaz ere, sintaxiak berak bakarrik ere ematen digu erranahiaren informazioaren parte bat, erreferentziatasunarena, hain zuzen ere. Orain arte erabili ditugun adibideak kontuan hartuz gero (ikus 3. Eranskina):

(10) *Mattinek Mattin ikusi du*

Badakigu jakin bi Mattin direla nahi ta nahi ez, nahiz eta guk dugun Mattin-ekiko ezagutza perpaus idatzi honen mugetan akitzen den. Arrazoi beragatik badakigu “bere burua” hitzaren erreferentzia “Mattin” dela ondoan, eta ez bertze norbait:

(11) *Mattinek ez du bere burua ezagutzen.*

Informazio guzi hori perpausaren sintaxiak ematen digu eta Gramatikaren forma Logikoak interpretatzen du.

CH.14. Orain arte emandako hipotesi guziek erran nahi dute, bada, hizkuntzalariaren lehenbiziko lana (eta, intelektualki ernagarriena, zeren eta gizakiekin ez bait dugu animaliekin egin genezakeen aprobarik egiten ahal) da hitzunaren *gaitasun* linguistikoaren berri ematea. Hizkuntz gaitasunak eta gainerako sistemen gaitasunak —herendentziaz emanak— ahaltzen dute hitz egitea, hitza ez bada ere hain ispilu neutro eta gardena, gure eguneroko *arike-tan* bertze elementu aunitzek hartzen bait du parte: nekeak, egoera psikologikoak, lekorapenak, adibidez. Aitzineko pentsalariek behin eta berriz bere buruari galdetu ziotena eta Russell-ek hain ederki paratu zuenari erantzuna emateko modua dateke guzi hau:

“How comes it that human beings, whose contacts with the world are brief and personal and limited, are nevertheless able to know as much as they do know?”

(Russell, 1948, 5)

Mario Bungearen oinarritzko hutsak

Nik ez dakit, bada, eman dudan Chomsky-rekiko interpretazio hau ortodoxoa den ala ez, baina hori egiten saiatu naiz, berak liburuetan idatzitakoak eta eskoletan erranak irakurri eta aditu ondoan. Erraten ahal dut, nolana ere, interpretazio hau Bungek bere liburuan ematen duena baino zuzenagoa dela. Honetan ez daukat inolako zalantzarik.

Ikus ditzagun orduan zein diren Bungek ematen digun interpretazioan, goiko tesi horiekin bat ez datozenak:

B.1. Abiapuntuan berean adierazten digu bi galderari eman nahi diola erantzuna: lehenbizikoan zer den lengoia jakin nahi du; bigarrenean, berriz, ikusi nahi du hizkuntzalaritza sortzailea Chomskyren filosofia osoarekin —eta, bereziki, sortzekotasuna eta mentalismoarekin— loturik dagoenetz ala ez.

E. Bigarren galderari erantzuna emateko ez da libururik idatzi behar: hor daude ehundaka artikulua, tesiak, azkeneko 25 urte honetan idatzi diren liburuak, e.a.. Guzi horietan ikusten da aunitzetan gramatikalari sortzaileek ez dutela aipatu ere egiten deusetarako Chomskyren filosofia. Areago, berak aitortu duenez, ikasleak aspertu egiten zaizkio gai horiekin eta gehienetan tekniko on batzuk izatera mugatu nahi dute, horrelako eztabaidetan sartu gabe. Gehienetan, bada, CH.12 eta CH.13-ra mugatzen dira hizkuntzalari hauen lanak, horietan aipatzen diren Printzipioak sortzetik edo bertze nonbaitetik heldu diren galde egiten ez dutela.

Ez hori bakarrik; Chomskyk berak argibidez emana du erantzuna Bungearen galderari, azken honek, nonbait, ezagutzen ez duen liburu batean:

“I think a linguist can do perfectly good work in generative grammar without ever caring about questions of physical realism or what this work has to do with the structure of the mind. I do not think there is any question that that is possible”.

(Chomsky 1982, 31)

B.2. Chomskyren “gaitasuna” eta “ariketa” Saussureren “hizkuntza” eta “hizketa” bikotearen parekoak ditugu (20 orr.), omen.

E. Ez; hauxe da, hain zuzen ere, hizkuntzalari aunitzek egin izan duen interpretazio oker ezaguna, baina goian paratutako tesietan ez banaiz mintzatu Saussureren bikote horretaz ere, interpretazio hori guziz eztabaidagarria dugu bertze aunitzen ustetan:

“En este punto es donde la distinción chomskyana de la competencia y la actuación se opone radicalmente a la dicotomía saussuriana de lengua y habla. En efecto, para Saussure, (...) la lengua es, esencialmente, un inventario, una taxonomía de elementos (...), en rigor no hay sitio para una sintaxis (...). Para Chomsky, por el contrario, es la sintaxis la que se convierte en el componente central...”

(Ruwet 1978, 67-69)

B.3. Hizkuntzalari sortzaileek uste dute beraiek egiten duten lana, hau da, hizkuntzaren azterketa abstraktua, hori dela lanik garrantzizkoena, baina hizkuntza landu nahi duenak, hizkuntzaren alderdi aberats guziak aztertu beharko litzuke, erran nahi baita, psikolinguistika, soziolinguistika, e.a. (25. orr.).

E. Chomsky, ikusi denez (CH 5, CH 9, CH 13, CH 14), ez litzateke horren kontra agertuko, nahiz eta berak ikusten dituen lehentasunek bertze bideak hartzen dituzten: honen ustez, hizkuntzaren gaitasunei buruz gramatikaren azterketan agertzen dira daturik argienak eta gramatikaren barnean, gainera, badirudi sintaxia dela atalik emankorrena... orain arte ditugun datuak kontuan harturik. Egoera hau, ordea, alda daiteke datu berrien argian.

B.4. Hizkuntzalari sortzaileek gramatika kanonikoa edo estandarra ikertzen dute. Baina, argi dagoenez, hizketa zuzenaren estudio gehiago egin beharko lukete eta hizkuntza guzietako dialektuak ere ongi landu (3. kapituluaren eta, bereziki, 50. orr.).

E. Puntu honetan Bungerean ezjakituria nabarmendu egiten da eta, lerro hauek luzeegi gertatu gabe eta berak ematen duen adibide berbera erabiltzeagatik, hauxe erran nezake: haren ustez, gaztelera ikertu beharrean, Argentinako hizketa ere aztertu beharko litzateke (50. orr.). Hortxe dago, adibidez, O. Jaegglik, Chomskyren zuzendaritzapean, La Plata-ko hizketaren klitikoez burutu duen tesia (Jaegli 1980). Chomsky eta Halleren (1968) lan klasikoak ere, bertze adibide bat emateagatik, Estatu Batuetan mintzatzen den ingelesaren Ipar Ekialdeko dialektua deskribatzen du, Kenyon eta Knott-ek (1944)

egindako lanaren arabera. Oinarrizko liburu hau ez du aipatzen Bungek. Adibide horiek osa daitezke mintzaldi honetan aipatuko ditudan bertze aunitz egileren lanekin.

Baina ez da hori bakarrik: kanpo-hizkuntzalariak ere aukera egin behar du, ez hizkuntza eta dialektuaren artean, baina dialektu edo aztertu nahi duen lurraldeko hizketa eta hiztunen idioleko partikularraren artean. Beraz, abstrakzio mailaren kontua da guzi hau. Huts bera aipatu behar da Bungek egiten duen “hizkuntza”/“hizketa” kontzeptuen arteko interpretazioan, biak bait ditugu eraiketa teorikoak eta, neurri horretan, bat bertzea bezain “reala” edo “irreala” (ikus Bunge 1983, 19-20. orr.).

B.5. Sinkronia eta diakroniaren maila ez dira berezi behar, lehenbiziko hura azkenekoaren zordun bait da (74. orr.).

E. Edozein hizkuntzalari, sortzaile nahiz bertze eskolakoa, bat letorke honekin. Nabarduretan hasten dira diferentziak, batek ez bait du bertzea kentzen: baieztapenarekin konforme egoteak ez du adierazi nahi ezinbertzekoa dugula historiara jotzea behin eta berriz hizkuntzaren edozein fenomeno aztertu nahi dugunean. Gazteleraren sintaxia azaltzeko latinera (edo urrunago?) jo behar dugu?

Nolanahi ere den, hizkuntzalari sortzaileen artean aurkitzen dira hizkuntzaren historiari arduratzen direnak: Kiparsky-ren (MIT-eko irakaslea bera) azkeneko lanetako batek (1979) Panini eta sanskritoaren gramatika aztertzen du (“a landmark publication in the field of Sanskrit grammar” dio M. M. Deshpande-k *Language* aldizkarian). Chomsky eta Halleren lana ere (1968) ingelesaren historiari arduratzen da, Lightfootekin (1979) gertatzen den bezala. Hurbil honetako hizkuntzak aipatu nahi baditugu hor dago, baita ere, Otero-ren (1971 eta 1976) lana erromantzeari buruz.

B.6. Hizkuntzalari sortzaileek aukeratu duten bidea hizkuntzaren gaitzuna aztertzeko hizkuntza bat bakarrik (ingeleza, hain zuzen ere) hautatzea izan da eta horrela hizkuntzaren unibertsalak aurkitzen saiatu dira (71. orr.).

E. Alde batera utzirik Bungek deitzen dituen “unibertsal” horiek ez direla Chomskyren unibertsalak (horiek hizkuntzen arteko antzekotasunak, lirakeke, hobeki, Chomskyren arauera, ikus 1982, 111), baieztapen hori ez da egia, MIT-en egiten diren ikasketen programak eta hizkuntzalari sortzaileek aztergai hartu dituzten hizkuntzen zerrendak erakusten duen moduan: erran daiteke, beldurrik gabe, oso eskola guti saiatu dela, ikerketa programa bera ezarriz (Lakatos-en zentzuan), generatibistek ukitu dituzten hainbat hizkuntza ikertzen: ingeleza, frantsesa, latina, turkiera, holandesa, hungaroa, grekoa, euskara, gaztelera, errusiera, japaniera, txinoa, Ameriketako eta Afrikako bertze hizkuntza aunitz, e.a.. Argigarri gerta daiteke, alo, Chomskyren edozein eskoletara joatea eta han aditzen ahal diren hizkuntzak kontatzea.

B.7. Chomskyren ustez, ikertu behar duguna “gogoia” da eta ez “burmuina”. Beraz, bada, gogoia eta burmuina zeharo diferenteak dira, ez dute

elkarren arteko zerikusirik eta hizkuntzalariek lehenbizikoaz arduratu behar dute. Ideia hau behin eta berriz azpimarratzen da liburuan zehar (31, 45, 48, 90-94 e.a.) eta nire ustetan, interpretazio hau dugu Bungerean hutsik handiendatako bat.

E. Baieztapen honek honela, hotz hotzean harturik, ez du deus ere erran nahi: CH 8-an erran dudanez, Chomskyren interpretazioa bertzelakoa da puntu honetan, han eman aipamenetan ikus daitekeenez. Bertze batzuk gaineratu ditut 4. Eranskinean.

Chomskyrena (omen) den jarrera horri Bungek berea kontrajartzen dio (ikus 80. orr. aurrera eta liburuko 3. Eranskina). Hori dela eta, Huarte San Juan pentsalari nafarra ere aipatzen du (92. orr.), berau izan omen bait zen, haren ustez, bere garaian kontu hauetan aurreratu egin zen pentsalari jakintsua, baina ez da ohartu Chomskyren lan aunitzetan agertzen dela Huarte (1972a, 22; 1972b, 9 —lekuko—) eta Bungek egiten duen interpretazio bera eginez, gainera. Badirudi, nonbait, biek jotzen dutela beren aldekotzat Huarte. Hizkuntzalari amerikarrak, bada, behar beharrezkotzat ikusten du Bungek egin nahi dituen ikerlan neurobiologiko horien tankerakoak burutzea baina bera ez da, jakina, biologoa. Gizakiok duguna gauza bat bakarra da: “gogoa” deitzen du hizkuntzalariak; “burmuina”, nahiago, biologoak (ikus Akmajian eta bertze, 1979). Badakigu jakin, dena dela, “gogoa” deitzen dugun hori bertze zerbait ere izan daitekeela erlijioaren ikuspuntutik eta filosofian ere arazo zaharretara eramaten gaituela (ikus Popper-Eccles-en arteko eztabaida, 1980) baina puntu honetan, Chomsky oso materialista ortodoxoa dela erran daiteke.

B.8. Chomskyk ez du ikertzen hizkuntzaren garapena, ez bait du gizabialakabidean “emergentzia” berririk agertzen dela onartu nahi (73. orr.).

E. Oso zaila da honelako zerbait mantentzea Estatu Batuetako irakaslearen lanetan oinarrituz, oso eboluzionista delako bera, Bungek aipatzen dituen bi liburutan erraten duen bezala (1975, 252; Piattelli-Palmarini 1980, 74-75 eta, ikusi nahi izanez gero, Putnam eta Chomskyren arteko eztabaida liburu berean, 296-324).

Bertze gaizki ulertze batzuk

Aipatu ditudan zortzi oinarritzko huts horietaz kanpo badago, egon ere, gaizki ulertze ugari liburu honetan zehar eta horietako zenbait paratu nahiko nituzke hemen, gaizki ulertze eta huts horien arteko muga bera ere nahikoa iluna dela alde zurretik ongi aski ikusten baldin badut ere. Ez ditut kontuan hartuko, dena den, Bungerean teoria propioak (liburu erdia baino gehiago bertzeren kritika egiteko baino bere teoriak aurkezteko erabilia da) eta egiten dituen interpretazio eztabaidagarri horietara mugatuko naiz, lehenago erran dudan bezala.

1. Lehenengo eta behin, erran beharra dago Bungek “hizkuntza” (edo “lengoaia”) eta “gramatika” nahasten dituela. CH 5-ean zehaztu dudana moduan, arront kontzeptu diferenteak dira biak. Erka daitezke, puntu hau argiago ikusi izanez gero, Bunge (1983, 30) eta Chomsky (1977, 32-33, 63-65, e.a.; 1979, 190 eta 1981, 4. orr., bertze aunitzen artean). Gai hauetaz interpretazio argia egiten du Lightfoot-ek ere (1982, 42-49, orr.).

2. Bungek ez ditu batere argi ulertu sakoneko eta azaleko egituren arteko harremanak (sinplifikazio harrigarria egiten du hori azaldu nahi duenean) eta ez ditu Chomskyk (1965) eta gainerako generatibistek (Jackendoff, leku-ko) egin dituzten lanak kontuan hartzen. Subkategorizapen arauak, adibidez, ez ditu aipatu ere egiten. Berak dioenez, gaur egun ez du bereizketa hori horrela egiten Chomskyk, baina hizkuntzalari amerikarrak hitz egina du honetaz (ikus 1981, 85. orr. eta jarr.), Bungek aipatzen ez duen azken urte hauetako Chomskyren lanik oinarrikoen.

Aipatu nahi nuke, hori bai, hasiera hasieran (51. orr.) sakoneko egitura argitzeko asmoekin ematen duen adibidea ez dela batere ona. Nik dakidala, gramatikalarri sortzaile gutik (semantikarietik bai, noski, baina hauek ez dute sakoneko egitura eta perpausaren erran nahiaren artean bereizten) onartuko luke “un indio le enseñó” eta “ella aprendió de un indio” perpausak sakoneko egitura berbera dutenik, Bungek dioten moduan. Chomskyren lanetan, lehenbizikoetarik hasita, ongi aski ikusten ahal denez, bi perpaus arraz diferente ditugu berauek eta, hortaz, bi sakoneko egitura desberdin dituzte. Berriz ere puntu honetan Bungek ematen digun interpretazioa eztabaidagarria da.

3. Bungerean ustez, Chomskyren teorian erraten omen da hizkuntz gaitasunak eta sentimen-motorezko gaitasunak ez dutela zerikusirik elkarren artean. Errana dut goitiago (CH 9) interpretazio hori ez dela behar bezain zuzena. Egia errateko, Chomsky ez da gehiegi mintzatu gai honetaz baina, halaz ere, honi buruz idatzi izan duenean (Piattelli-Palmarini 1980, 36-37, 48, 101, 138 —aipamen zehatza berau—, 140, 168, 170-173. Eztabaida hau Salaburu 1984-ean laburbildurik dago), jarrera garbia aurkezten du: gaur egun ez dugu frogarik sentimen-motorezko gaitasunen eta hizkuntz gaitasunaren artean erlazio hertsia daudela alde aurretik baieztatzeko. Bunge nahikoa Piaget-tarra agertzen zaigu hemen, baina aipatzekoa da B. Inhelder bera ere (Piageten kolaboratzaile ezagunenetakoa) ez datorrela bat Ginebrako maisuarekin. Dena den, Chomskyren jarrera ez da batere hertsia: norbaitek aurki balitza erlazio horiek eta formulatzeko gai izan, berak berehala onartuko lituzke.

4. Erreferentzia eta zentzua aipatzen ditu Bungek (59.orr.) eta argi eta garbi ez badio ere, ematen digu aditzera Chomskyk ez duela bereizketa hau egiten, zenbait hizkuntzalari sortzailek ez dituztela aipatzen (60. orr.) erraten duenean.

Guti dut gaineratzeko hemen, mintzatua bait naiz (CH 13) honetaz. Erran nahi dut, zernahi gizaz, erreferentziasuna eta zentzua direla azken urte hauetan generatibisten artean ematen den eztabaidaren gai nagusiak, nahiz eta ez duten, hori ez, Bungek ematen dien erranahi berbera. Honetaz ikus daitezke, bertzeak bertze, Chomsky (1977, 37, 43, 94-95, 182-183, 189-204, 206; 1979, 140-142, 146-147, 163, 175; 1981, 2, 3. eta 4. kapituluak), Belletti (1980), Higginbotham (1979a eta 1979b), Huang (1982), Kim (1976) eta Reinhart (1976) bertze aunitzen artean. Lan hauetan ikus daiteke, gainera, egiten diren ikerketak ez direla, Bungek uste duenaren kontra, ingeles kanonikora mugatzen.

5. Bungerean interpretazioan, Chomskyk ez omen du izan beti teoria bera unibertsalei buruz (69. orr.) eta urteen arauera, aldatu omen du: horrela, 1972.ean "gizahizkuntzen gramatikek bete behar dituzten baldintzen ikerketa" omen ziren haiek; 1979-1980.ean, berriz, "gizahizkuntzak ikasten dituen edonoren, hots, edozein haurren, hasierako egoera"; azkenez, 1981ean, "hizkuntza ikasteko gizakiaren tresneria". Nolanahi ere, ez da batere zaila aipamen gehiagorekin ugaltzea hau, Chomsky aunitz mintzatu bait da gai honetaz. Halaz ere, hiru aipamen horietara mugatzen bagara ere, ez dira elkarren kontrakoak, elkarren artean osatzeko modukoak baizik, alde zuzenetik erran dudak guziaz kontuan hartzen bada.

6. Bungerean iritziz, bi etsai nagusi ditu hizkuntzalariak "lengoaia" deitzen den hori aztertu nahi denean: enpirismoa (datuetara bakarrik mugatzea) eta mentalismoa (horrelako gaitasunik edo, onartzea). Ez dago argi zer den mentalismoa Bungerentzat, Chomskyk bertze zerbait ulertzen bait du horretaz, baina badirudi ez dagoela a priori gizakia ezaugarritzen duten berezitasunen artean hizkuntz gaitasuna dagoela baieztatzen dugunean, emandako arrazoiak kontuan hartzen badira.

Hortaz, hizkuntz-ikasketaren arazoa dela eta, huts handia egiten du Bungek: beronek dioenez, hizkuntza edo "sortzezko gaitasunaz" edo "bertzenaz ikasiz" lortzen dela (80. orr.) uste omen dute hizkuntzalari edo psikologoek (Chomsky, lehenengoan artean; konduktistak eta neuropsikologoak, bigarreanean) eta bere ustez, dikotomia horretan ba omen dago tertium quid delako bat (85. orr.), eraikortasuna edo konstruktibismoa, alegia: "podemos adivinar o conjeturar F sobre la base de unos pocos casos y, posiblemente, con ayuda de algunos principios generales aprendidos antes". Eta orduan ematen digu azalpen posible bat.

Erran behar da dikotomia hori Bungek planteiatzen duela eta ez Chomskyk, orain arte idatzitakoaren arauera, jarrera hau (burmuinaren plastizitatearen kontua, adibidez) dikotomiaren adarraren edozein muturrekin ezkon bait daiteke (ikus 4. eranskina). Bungek ez du inolaz ere sortzezko gaitasunik onartzen, Piaget zenak ere onartzen ez zuenez. Baina Bunge, Piaget bezala, arront anbigua da puntu honetan, ederki onartzen bait du "un innatismo moderado o potencial" (91. orr.) edo "el niño desarrolla sus 'facultades' gra-

dualmente” (88. orr.) dionean, gogoz geratzen garelarik zer erran nahi duen zehazki horrekin. Bertze huts metodologiko garrantziko bat egiten du, sortzezkotasuna eta gramatika unibertsala gizabilakabidearen historian esplikatu ez direlako, ez direla esplikatzen ahal baiezatzera pasatzen delarik. Huts hori berori egiten du Piagetek ere (ikus Piattelli-Palmarini 1980 eta Chomsky, 207). Bertzalde, mediku eta biologo aunitz (Monod, Luria, Eccles, Jacob —denak Nobel saridunak— eta Lenneberg, bertzeak bertze) bat datoz, ñabar-durak aparte, sortzezkotasunaren hipotesiarekin eta lehen mailako pentsalari eta fisikoa den Popper-ekin ere gauza bera suertatzen da. Ez da hori, dena den, Bungek egiten duen huts metodologiko bakarra: zerbait egiteko gaitasuna eta gaitasun horren argibidezko ezagutza nahasten ditu. Chomskyk erranen lukeen bezala “having the capacity to do so-and-so is not the same as knowing how to do so-and-so” (1980, 4).

7. Unibertsalak definitzeko hizkuntza bat bakarrik (71. orr.) edo guti batzuk (116. orr.) ikertzea ez da zientifikoa, Burgeren ustez. Alde batera utzirik gramatikalarari sortzaileak hizkuntza aunitz ari direla aztertzen, aurretik erran dudanez, ez dago batere lekuz kanpo hizkuntza bat bakarrik aztertzea, bertzeren batek bertzeak ikertzen dituen bitartean, hizkuntz unibertsalak hizkuntza guzietan daudelako, edo, inon ere ez:

“A valid observation that has frequently been made (and often, irrationally denied) is that a great deal can be learned about UG from the study of a single language, if such study achieves a sufficient depth to put forth rules or principles that have explanatory force but are underdetermined by evidence available to the language learner”

(Chomsky, 1981, 6)

Bertze zientzietan ere horixe gertatzen da: zenbat katu-klase aztertu behar dira katuen ezaugarriak definitzeko, edo zenbat hegaztin hegaztinak zehazteko? Etiopiako Afar-eko lurraldean aurkitu zituzten “Lucy”-ren hezur-erriaren erretoak erabili izan dira australopithekoen mota berri bat bereizteko; 1924. urtean Afrikako Taung-en aurkituriko buruhezur zatiak oraingoz burukomin handiak ematen dizkie zientzialariei eta Harnot-en (Pakistanen) bildutako kokots baten erdiarekin konformatu behar izan dute ramapithekoen berri emateko. Eranskinetan eman ditudan hizkuntz-adibideek eta liburuetan bertzenaz ere ehundaka agertzen direnek, ez ote dute, bada, hezur galdu horien maila, gutienez, ematen?

8. Aipa dezadan, azkenekorik, Bungek darabilen argumentatzeko modua: ba omen daude frogak non nahi (“numerosisimas”) hizkuntz gaitasuna bertze gaitasunekin erlazionatzeko (35. orr.) baina ez du liburu osoan bat bakarrik ere ematen edo guk begiratzeko moduko lanik aipatzen. Ez omen da (35. orr. hau ere) froga enpirikorik sortzezkotasunaren hipotesiaren alde baina bai, ba omen, froga pila bat haren kontra. Berriz ere, non? Argi bait dago, 88. orrialdean ematen dituenak ez direla frogak, frogen antza duten iritzi hutsak baizik. Gure harridura handiagotzen zaigu Bungerean zehaztasunaren

ezarekin: heredatzen omen dugu erdipurdizka egituraturik dagoen burmuina (“un cerebro a medio organizar” dio 35. orr. eta geroago, 88. orr., “la corteza cerebral del recién nacido está muy pobremente organizada” gaineratzen du). Zer erran nahi du definizio zerraldatu horrek?

Semantikaz idazten duelarik (4. kapitulua) eramaten du eztabaida orain duela hamabortz urte zegoen puntura (ikus Newmeyer) eta, makurrago, 57. orr. ematen dituen adibide berberak erabiliak izan dira hizkuntzalarien artean aspaldi honetan tankera honetako argumentazioa egiteko, baina Bungek ez ditu autore hauek aipatzen (adibide horiek, aldaketa batzuekin, Fillmorek emanak zituen 1968.ean, 25. orrialdetik aurrera) eta hori ezin da erraz barkatu zientzia lanetan.

Chomskyk ba omen ditu ematen dituen adibideetan kasu zitalak (“infames” dio, letraz letra) adibide infameak eta infame ez direnen artean bereizteko gaitasun berria erakutsiz. Bada adibide hori (63. orr.) ezaguna den “Colorless green ideas sleep furiously” perpausa da. Hemen ere ez da ohartu berak baino aise lehenago, eta aunitzez hobeki, nere ustez, Jakobson-ek (1974, 341 eta 342. orrialdeetan, Espainiako argitarapenean) eztabaidatua zuela hura bera.

Bertze gauza aunitz ere erran beharra da: hizkuntza batzuk bertze batzuk baino hobeki eraikiak (“mejor construida”) omen dira (?), 58. orr. dioskunez; hizkuntza oso tresna artifiziosoa omen (?) 79. orr. baieztatzen duenez; printzipio batzuk lehendik ikasiak omen ditugu —Piageten tradizioarik onean— baina ez du zehazten (85. orr.) zein diren horiek eta noiz edo non ikasiak; ez omen dakigu zer den Sakoneko Egitura (30. eta 34. orr) baina kontzeptu hau baliagarri suerta omen dakiguke (65. orr.); Chomskyren gramatikak ez omen dituzte perpausak sortzen, perpaus-tipoak baizik (41. orr.) eta ez dakit nik ongi nola egin daitekeen bat bertzea egin gabe e. a.

Azkenik, laburtzeko: ez da batere erreza liburu honi buruzko iritzi pausatirik ematea. Hasteko, Bunge-ren orrialde hauek bakarrik ditugu generatibistek idatzitako bertze milaka horien kontra. Bertzaldetik, Bunge ez da mugatzen kritika hotza egitera eta, batez ere semantikako kontuetan, bere teoriak aurkeztu nahi dizkigu. Chomskyri (gaizki) erran erazten dionaren artean, hutsak eta gaizki ulertzeak ugari ageri dira eta arront gutitan eztabaidatzen ditu Bungek arazo linguistikoak —semantikakoak ez badira— hizkuntzetako adibide zehaztetan oinarriturik. Zer gelditzen zaigu, bada, orduan? Garbiketa guzi hori egin ondoren eta sortzekotasunaren arazoa bazterturik, ez dut uste nik hain urrun dauden bata bertzetik bi pentsalariok —Chomskyk onartuko luke, seguraski Bunge-ren 3. Eranskina dagoen dagoenean— nahiz eta Iparamerikarra razionalistago agertzen zaigun. Generatibismoak, nire ustez, hemen eskeini zaigun kritika baino zerbait serioagoa behar duelakoan dago. Ez, ez da Bunge irakaslea aise iganen Rusell, Popper, Kuhn, Feyerebend, Lakatos, Quine eta bertze epistemologo gurdira, gaur irazkin nahi izan dudan lan hau bezalakoak egiten segitzen badu. Azken batean, berak uste duen baino enpiristagoa bait da Bunge.

Beraz, bada, eta puntu honetara ailegatu naizenez, akitutzat eman beharko nuke solasaldi hau. Baina ez dut, ez, bertzerik gabe gelditu nahi hemen. Aditu izan duzuenetz, mintzaldi osoa euskaraz egin dut, hemengo eskuara zehatzean ez bada ere, denek, hitzen aldetik behinik behin, aise konprendituko duzuen euskaraz. Euskara hemen ikasi nuen, Arizkungo karriketan eta Erratxurizen, nere sortetxean. Gero, orainko gazteei suertatzen zaien bezala, erdara hasi zen nagusitzen, irratian, telebisionean eta periodikoetan erdara bait zen erabiltzen zen hizkuntza. Ikasketak ere erdaraz egiteko lanak izan ditut. Kanpora ateratzen zarenean hartzen diezu hobeki neurria gauza guzietan eta kanpoan hasi nintzen hasi ohiartzen, herri kokor honetan erakutsi zidatela Europako hizkuntza zaharretako batean mintzatzen. Kanpoan nintzelarik ohiartu nintzen han argitaratzen direla hainbertze lan euskarari buruz: Amairuko hizketaz —konparazione— argitaratu zen liburu bat non eta Holandan, orain dela urte batzuk, adibide bat paratzeagatik. Kanpoan nintzelarik ohiartu nintzen mundu guzian dagoela halako jakin nahi bat horren harrigarri egiten zaien hizkuntza honekin. Eta, batez ere, kanpoan nintzelarik jakin izan nuen euskararekin ez direla ateak hesten, hemen behin baino gehiagotan aditu nuen bezala: neri, soilik, euskarak edeki dizkit ateak. Arizkungo mintzoa, Ameriketara dauden munduko laborategi aitzinetuenetako batean aztertu nuen. Zer erran nahi dut guzi honekin? Bada, Angel Irigaraiak segida ona izan dezan saiatuko naizela: badakit, bai, aunitzek irri eginen duela bere baitan, irri egitea ez bait da, azken batean, batere gostatzen. Baina argi dagoena da euskararen kontra agertzearekin ez dela deusik ere irabazten eta bai zerbait galtzen. Batek ez duenean nahi bere semealabek euskara ikastea, bere etxeko sabaiaren teilatua harrikatzen du, bertze gauzen artean gaur egun zerebroko kontuak aztertzen dituztenek ongi aski dakitenez, haurra aise hobeki desarroilatzen bait da hizkuntza bat baino gehiago ikasten duenean ttaliteitik. Hortaz, Nueva Yorkeko gizarte-talde inportanteenetako batek, judeo-tarrenak, nahi eta ez erakusten diete bi hizkuntza beren seme-alabei. Arrazoi hori bakarrik nahikoa izango zen. Ez dugu eskubiderik hizkuntzak ukatzeko haurrari: erdara beti ikasiko du, uste dugun baino hobeki. Euskara erakusten baldin badiogu gainera, hori irabazten duela haurrak, aberastasuna bait da beti ere. Euskarak deusetako balio ez duela diotenek jakin beharko lukete Espainian mintzatzen den erdarak ez digula balio ez Urepelen, ez Parisen, ez Hanburgon, ez eta Londresen ere. Ez pentsa: ez da hain unibertsala eta lehor haundiagoa duten etxeak badira. Hortaz komeni izaten da zakuak lehorrera sartzea, heldu baldin bada euria egitera ere. Bultzatu behar ditugu, bada, hemen ere, Baztanen, ikastolak eta euskararen aldeko bertzenazko bideak, ahalkerik gabe eta bakoitzaren buruan bakarrik egoten diren mamuak non nahi ikusi gabentanik. Historiaren dinamikak erakusten digu hori eta nahi badugu edo ez, horrela izanen da. Historiaren kontra jartzen baldin bagara gure haurretan izanen ditugu etsai haundienak eta noizbait leporatuko digute gure azolagabekeria. Nik neronek gaur egun eskuaraz ematen ditut eskolak unibertsitatean: bere garaian etxekoek ongi erakutsi zidatenekotz gertatzen da hori. Milesker.

1. ERANSKINA

BUNGEREN ESTILOAZ

“No incluimos la filosofía lingüística o filosofía analítica à la Wittgenstein o à la Austin, porque no se ocupa de la lingüística —ni de ninguna otra ciencia—, es inexacta y no se interesa por los grandes problemas ontológicos y gnoseológicos de la filosofía” (16)

“La función de la filosofía en el hexágono lingüístico es el de una araña sabia (o perversa, según se mire) que mantiene unidos los hilos de la telaraña, pone a prueba sus puntos débiles y ayuda a repartirlos. (La araña se alimenta de especialistas incautos incapaces de ver la telaraña)” (16-17).

“Otro factor que contribuye a la popularidad de Chomsky es que razona y escribe mucho mejor que el lingüista medio”. (29) (??)

“Hay numerosas pruebas de que la faculté de langage está íntimamente relacionada con otras funciones cognoscitivas, así como con las sensoriomotrices” (35)

“No hay la menor prueba empírica del innatismo y, en cambio, hay numerosas pruebas empíricas contra él” (35)

“Sofrenemos los caballos y sigamos escuchando al maestro” (39)

“La noción de una ‘estructura mental’ activa y separada de un cerebro activo es grotesca” (45)

“El próximo punto de nuestro orden del día es éste”. (48)

“Antes de Chomsky (1965), los lingüistas solían tener buen cuidado de no aventurarse en las brumosas colinas de la semántica: ahora vengan, perdidos, por ellas” (52)

“Segundo, existe una teoría, a saber, la semántica formulada por el autor (Bunge 1972, 1973, 1974a, 1974b), que asigna un significado a todo concepto y a toda proposición”. (58)

“Esta intuición fue generalizada y un tantito elaborada en la llamada tesis de Katz-Postal”. (53)

“La GGT ni siquiera distingue entre sentido y referencia, distinción reconocida por todos los filósofos”. (53)

“En ausencia de tal conocimiento, su búsqueda se parece a la búsqueda del sagrado crial tal como lo describió Mark Twain” (54)

“que en una lengua mejor construida...” (58)

“Ninguno de estos autores se ocupa de la referencia, ninguno de ellos usa herramientas matemáticas para exactificar y sistematizar estas nociones, y ninguno de ellos menciona mi teoría” (60)

“No es necesario cocinar una estructura lingüística profunda para advertir...” (63)

“Otro caso famoso, por no decir infame, es...” (63)

“Lo que no impide que los transformacionalistas hablen de la GU como si hubiesen visto su partida de nacimiento” (72)

“Esto es de esperar tratándose de un campo de investigación joven y aseado por el ejército mentalista” (75)

“La reconstrucción hipotética de una protolengua, como el protoindoeuropeo, es tan arriesgada como la reconstrucción...” (75)

“... porque el lenguaje es una herramienta muy artificiosa” (79)

“... toda gramática es una teoría —opinión que creemos haber destrozado en el capítulo 3—...” (81)

“podría pensarse que recalentar las ideas de Sócrates o de Leibniz sobre el aprendizaje, hacia fines del siglo XX, requiere no solamente una osadía considerable...” (83)

“A menudo los supuestos datos que figuran en semejantes especulaciones no son sino anécdotas, al igual que las historias de lejanas tierras que viajeros y misioneros solían narrar a los crédulos antropólogos del siglo XIX” (99)

“Por cierto, todos los lingüistas concuerdan en que la lingüística se ocupa de lenguajes, pero no están de acuerdo en qué sea el lenguaje ni, por lo tanto, en cuál sea la mejor manera de estudiarlo. Esto se debe en parte a la fragmentación de los estudios lingüísticos y en parte al hecho de que la cuestión de la naturaleza del lenguaje no es una estrecha cuestión técnica. En efecto, es un problema filosófico-científico del tipo de los problemas de la naturaleza de la mente o de la sociedad. Por consiguiente, no puede ser abordado con éxito por ningún especialista estrecho”. (109)

“El primer defecto es el pecado original de la escuela de Chomsky, del que derivan todos sus demás pecados”. (116)

2. ERANSKINA

ESPERIENTZIAREN EZNAHIKOTASUNA

Aldaketa guzi hauek, mugimendu hauek, egin ditzakegu perpaus haue-
tan (marratxoak seinalatzen du mugitu dugun elementuaren lekua):

(1) *Andreak norbait ikusi zuen mendian.*

(2) *Nor ikusi zuen andreak _____ mendian?*

(3) *Nor uste duzu [_____ ikusi zuela andreak mendian?]*

(4) *Nor erran duzu [uste duzula [_____ ikusi zuela andreak mendian.*

Hurrengo bi perpaus hauen erranahia berbera ez bada ere, erlazio estuan daudela erraten ahal da:

(5) *Gizon bakoitzak bertzeak maite ditu.*

(6) *Gizonek elkar maite dute.*

Ikus ditzagun orain ondoko adibide hauek. Zergatik suertatzen da per-
paus ezgramatikalak gertatzea? Nork erakutsi digu ezin ditugula perpaus
horiek, erranahi horrekin, erran?:

(7) *Uste duzu [zakurra erosi duela andreak.*

(8) *Agurtu duzu [zakurra erosi duen andrea.*

(9) *Zer uste duzu [_____ erosi duela andreak?]*

(10) **Zer agurtu duzu [_____ erosi duen andrea?]*

(11) *Galdetzen diot nere buruari [nork idatzi ote duen lan hau.*

(12) **Zer lan galdetzen diot nere buruari [nork idatzi ote duen _____]*

(13) *Gizon bakoitzak [Patxik bertzeak maitatzea] nahi du.*

(14) **Gizonek [Patxik elkar maitatzea] nahi dute.*

- (15) Lasterkari bakoitzak [bertzeek galtzea] nahi du.
- (16) *Lasterkariak [elkarrek galtzea] nahi dute.
- (17) Ikaskide bakoitzari asko gustatzen zaizkio [irakaslearen ixtorioak bertzei buruz].
- (18) *Ikaskideei aunitz gustatzen zaizkie [irakaslearen ixtorioak elkarri buruz].

Izartxoaren daramaten perpausak ez ditu inoiz ere erranen haurrak hitz egiten ikasten ari denean, nahiz eta bertze tankerako huts aunitz egiten dituen. Zergatik suertatzen da hori?

Erdaraz ere bertze hauek aipa genitzake:

- (19) *el libro está sobre la mesa.*
- (20) *El libro [que la chica ha comprado] está sobre la mesa.*
- (21) *El libro [que ha comprado la chica] está sobre la mesa.*
- (22) *El libro [que ha comprado la chica [que el jardinero ha saludado]] está sobre la mesa.*
- (23) *El libro [que ha comprado la chica [que ha saludado el jardinero]] está sobre la mesa.*
- (24) **el libro [que la chica [que el jardinero ha saludado] ha comprado] está sobre la mesa.*
- (25) **el libro [que la chica [que ha saludado el jardinero] ha comprado] está sobre la mesa.*

Esperientziak ez digu honetaz deusik ere erraten, baina perpaus guzi hauek logikoak dira eta arrotz errez interpreta daitezke: onek eta txarrek, denek dute erran nahi berbera.

3. ERANSKINA

HIZKUNTZAREN PRINTZIPIOAK

Ondoko adibide hauetan, hiztun guziok interpretazio hauek egiten ditugu:

- (1) *Mattinek Mattin ikusi du.*
i j
- (2) *Mattinek erran du berak eginen duela.*
i ij
- (3) *Berak erran du Mattinek eginen duela.*
i j
- (4) *Mattinek bere buruari erran dio.*
i i
- (5) * *Bere buruak Mattini erran dio.*
- (6) *Andreek erran dute gizonek elkar maite dutela.*
i j j
- (7) * *Andreek erran dute gizonek elkar maite dutela.*
i j i
- (8) *Mattinek erran dio Mireni berak eginen duela.*
i j ij,x
- (9) *Mattinek erran dio berari Mirenek eginen duela.*
i j x

Zergatik egiten ditugu interpretazio horiek nahi ta ez, bertze batzuk ere horiek bezain logiko eta interpretagarri badira? Lan honen mugak hautsiko lituzkeen azalpena beharko luke honek: erran dezadan, hori bai, adibide guziak eta paratzen ahal ditugun bertze aunitz ere Printzipio berak biltzen dituela: Uztardurak.

Ikus dezagun orain bertze multzo hau:

- (10) *Badaki euria eginen duela.*

(11) *Jonek badaki euria eginen duela.*

Zergatik ezin dugu, ordea, bertze hau ere egin?:

(12) *Iduri du euria eginen duela.*

(13) **Jonek iduri du euria eginen duela.*

(theta teoriaren bidez esplika daiteke hau).

Badirudi zenbait hizkuntzatan eduki fonetikorik ez duten kategoria hutsak badirela:

(14) *Nahi duzu etxera joan?*

(15) *Nahi duzu (zuk) [(zu) etxera joan]?*

Mugimenduaren bidez emanak ere:

(16) *You saw the man.*

(17) *Who did you see e? (e = kategoria hutsa).*



Ikus dezagun orain honekin erlazionatzen den ingelesezko fenomeno bat. Hizkuntza honen zenbait dialektutan halako bategite berezia gertatzen da “want” eta “to” hitzak elkarren ondoan daudenean:

(18) *They want to visit Paris.*

(19) *They wanna visit Paris.*

Baina begira zer gertatzen den orain (ikus Chomsky 1981, 181):

(20) *They want Bill to visit Paris.*

(21) *Who do they want to visit Paris?*

(22) **Who do they wanna visit Paris?*

(23) *They want to visit Bill.*

(24) *Who do they want to visit?*

(25) *Who do they wanna visit?*

Esplikazio posible bat izan daiteke pentsatzea “want” eta “to” hitzen artean fonetikoki hutsa den kategoria sintaktikoren bat badela, interpretazio honekin:

(21') *Who do they want e to visit Paris?*



(24') *Who do they want (they) to visit e?*



Kategoria huts horiek (“e” eta “(they)” bezala aurkeztuak) ez dute eduki fonetikorik baina propietate sintaktiko diferenteak dituzte, antza denez. Datu

horiek ederki azaltzen ditu **Kategoria Hutsaren Printzipioak (KHP)**. Kontua da proposatzen dugun teoriak, hizkuntzarekiko teoriak (printzipio hauen antzekoak edo hauek berauek) GU-renak edo hizkuntza partikularrenak diren zehaztu behar dela.

4. ERANSKINA

“GOGOĀ” ETA “BURMUINA” CHOMSKYREN TEORIAN

“In a sense, empiricism has developed a kind of mind-body dualism, of a quite unacceptable type, just at the time when, from another point of view, it rejected such dualism. Within an empiricist framework, one approaches the study of the body as a topic in the natural sciences, concluding that the body is constructed of varied and specialized organs which are extremely complex and genetically determined in their basic character, and that these organs interact in a manner in which is also determined by human biology. On the other hand, empiricism insists that the brain is a tabula rasa, empty, unstructured, uniform at least as far as cognitive structure is concerned. I don’t see any reason to believe that; I don’t see any reason to believe that the little finger is a more complex organ than those parts of the human brain involved in the higher mental faculties; on the contrary, it is not unlikely that these are among the most complex structures in the universe. There is no reason to believe that the higher faculties are in some manner dissociated from this complexity of organization”. (Chomsky 1979, 81). Bungek ez du lan hau aipatzen.

“When I use such terms as “mind”, “mental representation”, and the like, I am keeping to the level of abstract characterization of the properties of certain physical mechanisms, as yet almost entirely unknown” (Chomsky 1980, 5).

“What do we mean for example when we say that the brain really does have rules of grammar in it? We do not know exactly what we mean when we say that. We do not think there is a neuron that corresponds to ‘move alpha’. So we are talking somehow about general structural properties of the brain, and there are real nontrivial questions about what it means to say that the brain, or any system, has general properties. It is like saying, what do we exactly mean when we say this computer is programmed to do arithmetic? We say that, and we understand it —it certainly has some meaning. But we do not mean there is a neuron in these that says “Add 1” or a diode or something that says “Add 1”. I think there are really serious questions...” (Chomsky 1982, 32). Bungek ez du lan hau aipatzen.

Lan hau idatzi ondoren eskuratu ahal izan dut Chomskyren azken liburuaren eskuidazki bat (ikus Chomsky 1984) eta han sistematikoki hitz egiten du beti “mind/brain” bikoteaz.

BIBLIOGRAFIA

- AKMAJIAN, A.; DEMERS AND R. HARNISH: 1979. *Linguistics: An Introduction to Language and Communication*. Cambridge, Mass: MIT Press.
- ALTMANN, S. 1962. "A field study of the sociobiology of Rhesus Monkeys, *Macaca Mulatta*, *Annals of the New York Academy of Science*, 102, 338-435.
- : 1965. "Sociobiology of Rhesus Monkeys II: stochastics of communication", *Journal of Theoretical Biology* 8, 490-552.
- : 1968. "Sociobiology of Rhesus Monkeys III: the basic communication network", *Behavior* 32, 17-32.
- BELLETTI, A.: 1980. "On the anaphoric status of the reciprocal construction in Italian". Mimeografiatua, MIT eta Scuola Normale Superiore.
- BUNGE, M.: 1979. *La investigación científica*. Barcelona: Ariel.
- : 1980. *Epistemología*. Barcelona: Ariel.
- : 1983. *Lingüística y filosofía*. Barcelona: Ariel.
- CHOMSKY, N.: 1965. *Aspects of the Theory of Syntax*. Cambridge, Mass: MIT Press.
- : (1966) 1972a. *Lingüística cartesiana*. Madrid: Gredos (*Cartesian Linguistics. A Chapter in the History of Rationalist Thought*).
- : 1972b. *Language and Mind*. N. York: Harcourt Brace Jovanovich, Inc.
- : 1975. *Reflections on Language*. N. York: Pantheon Books.
- : 1977. *Essays in Form and Interpretation*. Amsterdam: North Holland Publishing Company.
- : 1979. *Language and Responsibility*. N. York: Pantheon Books.
- : 1980. *Rules and Representations*. N. York: Columbia University Press.
- : 1981. *Lectures on Government and Binding*. USA, Cinnaminson: Foris Publications.
- : 1982. *The Generative Enterprise*. A discussion with R. Huybregts and Henk van Riemsdijk. Dordrecht: Foris Publications.
- : 1984. *Knowledge of Language: Its nature, Origins and Use*. MIT (argiratu gabe).
- CHOMSKY, N. and M. HALLE: 1968. *The Sound Pattern of English*. N. York: Harper and Row.
- ECCLES, J. (Ikus Popper-Eccles).
- FERRATER MORA, J.: 1979. *Diccionario de filosofía*. Madrid: Alianza Ed.
- FILLMORE, CH.: 1968. "The Case for Case" in *Universals in Linguistic Theory*, edited by E. Bach and R. Alarm. N. York: Holt, Rinehart and Winston.

- HIGGINBOTHAM, J.: 1979a. "Reciprocal interpretation". Mimeografiatua. Columbia.
- : 1979b. "Anaphora and GB: some preliminary remarks". Mimeografiatua. Columbia.
- HUANG CHENG-TEH, J.: 1982. *Logical Relations in Chinese and the Theory of Grammar*. MIT: Doktorego tesia.
- JACOB, F.: 1970. *La logique du vivant: une histoire de l'hérédité*. Paris: Editions Gallimard.
- JAEGGLI, O.: *On Some Phonologically-Null Elements in Syntax*. MIT: Doktorego tesia. (*Topics in Romance Syntax* izenarekin argitaratua: 1982. Cinnaminson: Foris Publications).
- JAKOBSON, R.: 1981 (2. edic.). *Ensayos de lingüística general*. Barcelona: Seix Barral.
- JOLLY, A.: 1972. *The evolution of Primate Behavior*. New York: MacMillan.
- KENYON, J. S. and T. A. KNOTT: 1944. *A pronouncing Dictionary of American English*. Springfield, Mass: Merriam.
- KIM, W. C.: 1976. *The Theory of Anaphora in Korean Syntax*. MIT: Doktorego tesia.
- KIPARSKY, P.: 1979. *Panini as a variationist* (ed. by S. D. Joshi). Cambridge, Mass: MIT Press.
- LANCASTER: 1975. *Primate Behavior and the Emergence of Human Culture*. New York: MacMillan.
- LENNEBERG, E.: 1975. *Fundamentos biológicos del lenguaje*. Madrid: Alianza Universidad.
- LIGHTFOOT, D.: 1979. *Principles of Diachronic Syntax*. Cambridge.
- : 1982. *The Language Lottery (Toward a Biology of Grammars)*. Cambridge, Mass: MIT Press.
- LURIA, S.: 1973. *Life: Unfinished Experiment*. N. York: Scribner.
- MONOD, J.: 1970. *Le hasard et la nécessité*. Paris: Editions du Seuil.
- : (ikus Piattelli-Palmarini).
- OTERO, C. P.: 1971. *Evolución y Revolución en Romance*. Barcelona: Seix Barral.
- : 1976. *Evolución y Revolución en Romance II*. Barcelona: Seix Barral.
- PREMACK, D.: 1980. (ikus Piattelli-Palmarini).
- PREMACK, D. and G. WOODRUFF: 1978. "Chimpanzee problem-solving: a test for comprehension", *Science* 202, 532-535.
- PIATTELLI-PALMARINI (ed.): 1980. *Language and Learning. The Debate between Jean Piaget and Noam Chomsky*. CAMBRIDGE, Mass: Harvard University Press.
- POPPER, K. y J. ECCLES: 1980. *El yo y su cerebro*. Barcelona: Labor.
- REINHART, T.: 1976. *The Syntactic Domain of Anaphora*. MIT: Doktorego tesia.
- RUSSELL, B.: 1948. *Human Knowledge: Its Scope and Limits*. N. York: Simon and Schuster.
- : 1961. *The Basic Writings of Bertrand Russell* (edited by Egner and Denonn). N. York: Simon and Schuster.

- RUWET, N.: 1978. *Introducción a la Gramática Generativa*. Madrid: Gredos.
- SALABURU, P.: 1984. "Hizkuntza eta Linguistika" (argitaratu gabeko hitzaldia, EHU-ak antolaturiko Udako Ikastaroetan emana).
- WOOD, B.: 1976. *The evolution of Early Man*. London: Peter Loewe.
- YOUNG, J. Z.: 1971. *An Introduction to the Study of Man*. Oxford University Press.

PELLO SALABURUREN EUSKALTZAINDIAN SARTZEA

Arizkun, 1985-III-31

Koldo Mitxelena

Jaun-andreak:

Gutziz pozgarri nuke egun hau eta une hau, honelako ospakizunek plagazon ez garenoi (ez izan eta ez izango) sortzen diguten harako estuasun hura ez balego bitarteko. Jaia Nafarroan delako, aurrenik, eta, Nafarroan izateaz gainera, Baztango kolko leunean gertatzen zaigulako, inoiz, eta ez hain aspaldi, Elizari dagozkionetan Baionari itsatsirik zegoen eskualde honetan. Elizarenetan eta hizkuntzarenetan esango nuke, bidenabar esana bidegaltze bihurtzeko kezkarik ez banu.

Eta jaia Nafarroan dugu nafar bat dela medio. Hirugarren aldiz aurkitzen naiz ohorezko bezain larri den egoera honetan. Nekez atzenduko zait lehenbizikoa, Nafarroako lurretan gertatua hura ere, ez hain aspaldi gainera, bitartea historiaren kana luzeaz neurtzen badugu behintzat. Leitzan izan ziren izatekoak eta Orixe zen gure artean sartzen zena, berandu xamar hala beharrez: 1958an agertu ziren **Euskera**-n han esanak. Gogoz eta hizkeraz nafar zen hark (euskaldun guztiok gara nondik edo handik nafar) ez baitzuen zinetako jaioterria hautatu nahi izan bere sarrerarako. Mugakoa zen, egia esan, eta muga gelditu nahi izan zuen, harako Erdi Aroko "Gaizkile muga" zelako hartan.

Gure gauzen berri dakienak badaki, beraz, gazteago nintzelarik egin nio-la erantzuna zaharrago nuenari eta ikasle nintzela aspaldidaniko, nahiz eta urrutiko, irakasleari. Oraingoan, berriz, zaharrena da erantzule; ez, haatik, irakasle eta gidari. Irakaskide dut Salaburu eta esan daiteke gainera, papere-tan ageri diren zenbait izen-tituluri bagagozkio, bere nolazpaiteko gidaria naitzela eta izan naizela.

Izenak eta harako "geiak", ordea, ez dabilta hemen ere batera. Alde-rantziz dabiltzala esatea hobe, zalantzarik gabe. Salaburu, izan ere, berezko argia eta besterengandik ikasiak esku artean zituela, Ameriketara joan zitzaigun behin. Eta han luzaroko egonaldirik egin ez bazuen ere (batek baino gehiagok esan ohi du lasterregi itzuli zitzaigula), aberasturik bihurtu zen gure-

gana, lehen eta geroko indiano edo amerikanoen antzera. Nik ere, beraz, Salaburu izan dut gehienbat artzain hizkuntzalaritza arazoetan; ez da bera, itxurak itxura, nere artaldekoetarik.

Oraingo mintzaldiek ere ez dute, mamiaren aldetik, ordukoen eite handirik. Euskal azentuaz aritu ginen Leitza eta beldur naiz ez ote genion entzungor egin elkarri, pittinen bat bederen. Orixe Galileo aurreko gizona genuen, halako batean esan nuenez. Newton aurrekoa halaber, Lyell eta Rask-en aurrekoa, eta ez dut esango Darwin aurrekoa zela *Quito'n arrebarekin* irakurri duenak dakizkien arrazoiengatik. Ez zuen, bestela esan, XVII. mendeko iraultzaren berri gehiegirik jaso, ez ordukoaren segidarenik, gure artean maiz aski gertatu ohi denez. Baita egungo egunean ere.

Beste zerbaiten oihartzun dira oraingoak, ez baitute zer ikusi berezirik ez euskararekin ez Euskal herriarekin. Horrexegatik beragatik uste dut badutela ikuskizunik euskaldunekin, erdaldunekin izan dezaketena adina, bai, behinik-behin. Ea ez ote den, galdatu digu euskaltzain berriak, bi bide baizik gure jakiundecko baldernan sartu eta egoteko, sarreraren meharraz kexu. Baietz erantzungo nioke nik, erantzuna eskuko baldin banu. Antzekoetan beste edozein lekutan agitzen denez, zabalik dagoena edo zabalik egon daitekeena: darabilen lanbidean ikasien eta asmatuen berri zehatz eta zorrotzak aditzera ematen dituenak dena den irekirik eduki behar duena. Berriak, noski, hizkuntza jakin batean —euskaraz gurean— eman baldin baditu eta direlako berriok, zeinnahi hizkuntzatan emanak, hor barrena barreiatu dabilzan eskuliburu merkeetan xurgatu ez baditu.

Hemen entzuten duguna Chomsky eta Bungereken arteko borrokaren abarrotsa baizik ez da, nolazpait ere. Borroka aski bitxia, alafede, ez baita alderdi baten eraso besterik, ez dakigularik honek hautatu duen etsaia ezertaz jabetu den. Salaburuk esan bezala, Bungek liburuxka bat egin zuela badakigu, Chomsky-ren kontra izendatuki eta bide batez, ezinbestean, harengandik datorren hizkuntzalaritza sortzaile eta formaldatzailearen kontra. Ez bide du delako obrak beste munduko hedamenik erdietsi. Ez dakigu, ordea, itzulpenik izan duen, gehigarrikerik edo osagarrikerik erantsi dion egileak. Are guttiago gertuaren zantzua Chomsky beraganaino barreiatu ote den.

Honek eduki zezakeen arjentinarraren desafiaoa, edo dotoreago eta bizkaitarrago nahi baduzue aupada, jakile izan balitz. Horrela izanik ere, gerta zitekeen ez adituarena egitea, gogorik nahiz astirik ez zuelako. Bata zein beste falta zitzaizkion behar bada. Nolanahi ere, jendartearen erori zen eskularrua, ez dakigu zein Konradinoren bultzadaz, Salaburuk altxatu du beretarren izenean.

Hitza eman zaidanez gero auzi honetan, eta noraezean hartu behar dudana gainera, neure buruarekikoak garbitu nahi ditut hitz bitan. Edozeinek jakin dezake, gogoak ematen badio, ez naizela Chomskytarra, ez amorratua ez amorru gabea. Esan dezagun zale naizela aurkari baino areago.

Bada zergatik. Iraultza bortitza landatu du hizkuntzalaritzan, ez agian Kuhn-en iritzien arabera, bai haatik edozein kaletar nahiz baserritarren gogorako. Eta ez dira horren ondokoak atertu ez agortu, nahiz abiatzeko hartan ustekabeko izan zitezkeen bideak gero zabalik gelditu, irekirik zeudela ziruditenak giltzaturik agertzen ziren bitartean. Besteak beste, honako hau aipatzea aski litzateke: Chomsky-k hurbildu du hizkuntzalaritza aspaldi aldameneko izan behar zituen jakiteetara eta, halaz guztiz, urrun baino urrunago zeuzkaretara.

Tarteko izan denak bakarrik daki nolako saltsa eta lokatzetan ibili diren orakatuak hizkuntzari dagozkion ikerlanak. Lagun bitxiak zituen aialdeko gramatika zelakoak aspaldidanik: ez dago begiratzea besterik noraino egon den murgildua Humanitate direlakoan altzoan nahiz alemanez *Belletristik* esaten denaren magalean. Estrukturalista omen zen joerak ez zituen hortik zetozen gaitzak deuseztatu, areagotu baino. Humanitateak premiazko ditugu, izan ere, gure artean: badira ehun urte baino gehiago filologia eta hizkuntzalaritza zein bere aldetik abiatu zirela, elkarrekiko lokarriak eten gabe, haatik. Ez da aski literatura (eta gainerakoak) baztertzea eta ukatzea hizkuntzaren zientzi-moduko azterbidea eskumenean edukitzeko. Gizona gizon bihurtu duen hizkuntza aurrean dugu beti giza-gauzetan eta edozein izaki, ezagutzen dugun neurrian, giza-gauza dugu nondipait.

Uste dudanaren arabera egia dena osorik esan behar baldin badut (eta komeni zaigu holako zerbait noizean behin egitea, barrera garbitzeko edo), badute Chomskytar frankok, ez Chomsky-k berak, laborrian ikara paratzen nauen makurra: lehengoz (eta ingurukoez) maiz azaltzen duten arduragabekeria. Aski dut, esate baterako, itzulia dabilen Newmeier-en liburuaren lehen orrialdeak irakurtzea (gainerako merezimendurik ez diot kenduko) neure burua hotzikarak hartzeko.

Esate baterako, *competence / performance* eta *langue / parole* ez daude Salaburuk, “aunitzek ikusi duenez”, uste duen bezain aldenduak. Zuzen dago, jakina, ez duela Saussurek sintaxia bere “hizkuntzan” garbiro ametitzen. Delako *Cours* hori, hala beharrez esana eta ahal zen moduan bildua eta argitaratua, ez da izan, Ginebrako esaneko ikasleentzat izan ezik, Europako estrukturalisten baitarik “garatu den *hizkuntza*”, horren ernamuina baizik. Hauek, inolazko zalantzarik gabe, hizkuntzaren barrunbean zeukaten. Bestetik da, berek bestelako usteak izan arren, aurrerakada eskasak egin izana arlo horretan.

Bunge bera, egia esan, badirudi osinik osin dabilela horrelakoetan. Beretzat ere, egin dena, kaxkarra maizenik, Estatu Batuetan, aip. l., 27 orr., “en una época en que la mayoría de los lingüistas dedicaban la mayor parte de sus esfuerzos a trabajo de campo, como ocurre todavía en antropología (cuna de la lingüística moderna)”. Nik ez dut gehienetan jakiten zer adierazi nahi den ‘moderno’-ren gisako emendailuen bidez. Ze *fieldwork* egin zuen Saussurek? Non gertatu ziren, esaterako, Jakobsonenak, Kurylowicz-enak,

Trubeckoj-renak? Noiz edo noiz zerbait bildu zuten noraezean, hala nola Benvenistek iraniar hizkuntzetan edo Martinet-ek bere jaioterrian. Bloomfield bera ere gehiago saiatu zela esango genuke konparaketan bilketan baino.

Dialektuen azterketan aritu den jendea, gurean eta besterenean, ez ote zebilen lekuan lekukoak jasotzen? Ala indioena behar du izan hizkuntzak *fieldwork* bihur dadin lana? Nolanahi ere, lehenbiziko hizkuntz-atlasa USA-n, 1939-43an argitaratu agertua, hauxe izan zen: *Linguistic Atlas of New England*. Egilea, Hans Kurath, Austrian jaioa eta European ikasia zen, Jud eta Jaberg-engandik batipat.

Ezinezkoa dirudi norbait, Bunge bada ere, *de omni re scibili* behar bezala mintzatzeko gauza izatea. Ekonomilarien aldetik horrelako surmurra entzuna nuen jadanik. Eta, gure eremuari dagokionez, aditu dituzue Salaburuk salatu dituen oztopoak eta irristadak. Larriagoak dira hauek, autore bakar baten obrari buruz gertatuak direlako.

Ni gehienik mindu eta sutu ninduen aitortzekotan, 75. orrialdera, berri aurrerago bihurtzekotan, bidaliko zintuzket. "... todos los estudios históricos están afectados de pobreza de datos y muchos de éstos son inevitablemente circunstanciales", dio arrazoi osoz, gehiago ere esan zezakeelarik. Gehitzen duena, ordea, beste honako hau da: "La reconstrucción hipotética de una protolengua, como el protoindoeuropeo, es tan arriesgada como la reconstrucción hipotética de la fase inicial de la expansión del universo".

Zenbait jende, ni ere barne, saiatu da lehen-hizkuntza hizkuntza inoiz ez dela adierazten, ezta alderatzeko ere. Hizkuntz berreraiketak muga zorrotze-giak ditu, apurka eta pitinga ari da beti lanean eta eskemen eskemak ditu azken irabaziak, onenean ere. Indieuroparraren kasuan (eta ez du aurrizkirik behar, gure saioek nabarmentzen dutena ez baita inolaz ere hizkuntza), egin dezagun kontu duela bost edo sei mila urteko gorabeherak direla. Lekutan zegoen orduan ere harako Bungek aipatzen duen *Big bang* hura! Eta fisiko zentzudunak dira honetaz (eta garai bereko antzékoez) hizketan ari direnak, ez hizkuntzalari ergelak.

Iraganaldiari buruz haztamuka gabilta guztiok, eta itsu-itsuan, urrutixegi jo nahi baldin badugu. Horrela, bada, Lizardiren txoriak udazkenean bezala "urrundu-bearka" ari zaigun Bunge sarri asko ikusiko dugu zilipurdika. Hizkuntzaren ontogenia ez ezik, filogenia ere aztertu behar omen genuke. Ezinkizun da, ordea. Haurraren auteman dezakegu nola sortzen eta hazitzen doan mintzatzeko gaitasuna, kanpoaldetik bederen. Ez dugu, haatik, begien bistan Adan lehengurasoa, ezta ere aspaldiko honen lekuan ipin dezakegun ordezeko gizaiderik. Ezaguera hori ez da dagoenekoa; ez eta ere, segur aski, etorkizunekoa.

Arestian aldatu dudana pasarte baina lehentxeago honela ari zitzaigun: "Es verdad que hay muy pocos datos empiricos acerca del origen y la evolución del lenguaje humano; esto es de esperar de un campo de investigación

joven y asediado por el ejército mentalista (bai, arraioa!): sin embargo, ya hay algunos resultados, tales como el estudio de la emergencia, comparativamente reciente, de nuevas lenguas (*créoles*) a partir de lenguas chapurradas (*pidgins*)... Otro es la identificación del 'área' de Broca en un par de cráneos de homínidos que vivieron hace dos millones de años”.

Bi erru eskerga ageri dira hemen, eta ez dut 'dirudi'-rik sartuko esaldian. *Pidgin/créolei* buruzko ezaguera bazuen Molièrek, baita XVIII. mendean euskaldunekin honela mintzatzen ziren islandiarrek ere: *Christ Maria presenta for mi balia, for mi presenta for ju bustana*. Hutsa, hor, larrapastadaren marka lotsagarria, *chapurrado* hitzean datza. Ez baitaki horrelako jardunean ari denak ezta zertaz ari den ere.

Bungerentzat, nabari da, gizakiak ez dira berezi behar ez arrazaz, ez erlijioaz, ez abar eta abarrez. Bai, ordea, hizkuntzaz. Hizkuntzak ez baitira berdinak —ezta, beraz, hiztunak ere—: badira hizkuntza oso eta beteak, baita ere, horien aldakan, erdi hizkuntza diren hizkuntzaxkoak.

Beste zenbait lekuko: “El tercer obstáculo es concebir el lenguaje de manera que sólo las lenguas modernas se ajusten a la definición, sin que quede lugar para las menos desarrolladas” (77). Luzeago eta zehatzago: “Tratar de descubrir la 'esencia del lenguaje'... examinando una única lengua es como tratar de encontrar la 'esencia de la vida' estudiando una sola bioespecie y, lo que es peor, investigando una especie extremadamente compleja, como la nuestra, en lugar de alguna modesta bacteria”. Euskarak balio luke ausaz.

Darabiltzadan puntuetan, bi dira batez ere Bungerean erru galantak. Edozeinek pentsa dezake, zein ere ezjakina den gai hauetan, nekez lortuko dugula argibiderik antzina-antzinako gizaki zein gizaideen kaskezurretan horien jabeek izan zezaketen hizketarako gaitasunaz. Izan ere, askozaz ere gogorra goa da burezurra barrengo muin-azalik gogorrena baino. Nekez utziko du, beraz, biguinenak marka beste hartan, baldin eta inoiz irakasten ziguten Mohs-en mailakatze hark funtsik badu.

Hona zer dioen, esate baterako, E. H. Lenneberg-ek, *Fundamentos biológicos del lenguaje*, 1975, 291, ingurukoak ere irakurgai direlarik: “Si a un grupo de expertos se les diesen fragmentos del cráneo (o el cráneo completo vaciado, si se quiere) de un hombre moderno, digamos de un individuo muerto tres años antes en circunstancias desconocidas, y se les pidiese que dijeran si esa persona había adquirido o no el lenguaje..., su juicio se basaría por completo en su conocimiento de las condiciones que en la actualidad prevalecen entre la mayor parte de la población. Los huesos por si solos no pueden proporcionarles ninguna pista sobre las capacidades lingüísticas del difunto. Podría haber sido un retrasado normocefálico o un gran orador, o, si el cerebro es anormalmente pequeño, podría haber pertenecido a un pigmeo africano o a un enano cabeza de pájaro —los dos en posesión del lenguaje—, o podría haber sido un individuo microcefalo que no dominase más que unas pocas palabras. Y si no pueden hacerse deducciones seguras sobre huesos

recientes, difícilmente puede presumirse que sea posible hacer inferencias sobre hombres fósiles que vivieron en circunstancias casi completamente desconocidas”. Argi da badagoela beste eragozpenik, “mentalisten” mamua uxaturik ere.

Bungek ‘porteñoiz’ *chapurrado* deitzen duena Espaini aldeko *chapurreado* da, noski: ahuntz-erdara nahiz asta-euskara moduko zerbait, horrenbestez. Badakigu, ordea, *pidgin* batean ari denak badakiela beste hizkuntza bat guttienez. *Pidgin* hori, besterik ez dakienean, *créole* bihurtua baita: zenbaiten lehenbiziko hizkuntza eta hizkuntza bakarra gainera.

Eta hizkuntza oso ta betea, gainera, hizkuntzariaren ozteak aho batez errepikatzen duenez; edozertarako gauza, goikoetarako eta behekoetarako, gertatuek eta gertatzen ari direnek erakusten digutenez. Landuak eta landugabeak izan daitezke hizkuntzak. Hizkuntzak dira halere eta ez dugu ahaztu behar herri basatienek ere aski landuak direla, hitzez eta oroitzapenez, izkribuz eta irakurriaz ez bada ere.

Aho betean onartzen du iritzi hau arestiko Lenneberg-ek, inondik ere ez delarik hizkuntzalaria. Ik. 298 or.: “Hoy día podemos estudiar culturas que son esencialmente neolíticas en su estado de desarrollo, así como culturas lo suficientemente avanzadas como para desintegrar el átomo y explorar el espacio interplanetario. Sorprendentemente, los lenguajes naturales que se hablan a lo largo de este margen de culturas parecen estar basados en principios similares. Es un hecho empírico que, hoy día, ni los instrumentos utilizados ordinariamente en una cultura dada ni la estructura social asociada a esa cultura pueden proporcionarnos pistas sobre la complejidad de la estructura del lenguaje que ahora hablan los individuos de esa cultura. Los lenguajes naturales no pueden ordenarse en términos de complejidad”. Diren hizkuntza naturalak, jakina, ez izan zitezkeenak. Azkeneko hauetaz, haatik, irudimena bakarrik mintza daiteke, arrazoizko makuluen laguntzaz, onenean ere. Maku-luak, damurik, ez dira gorputzaren atal naturalak.

* * *

Zerbait esan nahi nuke eta zerbait esan behar dut, hitzaldia burutu baino lehen, Salaburuk ahotan hartu dituen goragoko auziez. Materialismoarekiko ez zait, egia esan, gehiegi axola eta, oinarriak aukeratzekotan, ez nituzke nik behintzat hor aukeratuko. Gogoeta bera ere ez da, nik uste, garbiegia egungo egunean; bakuna, behintzat, ez. Ezin izan daiteke inor orain materialista Holbach edo are Engels izan zitezkeen moduan.

Ez dut ezagutzen puntu horri buruzko Chomsky-gandik datorren aitormen zuzenik: Salaburuk, ordea, nik baino hobeki ezagutzen du, aise hobeki, eta bere esanari nagokio. Bunge da, dudarik gabe, materialista, delako jarrera horren oihukari ozen han eta hemen, lehen eta orain, ageri denez gero.

Ukitu nahi nukeen puntua eztabaidagai bihurtzeko, egoki iruditzen zait Popper-en iritzia bidenabar bederen aipatzea. Hiru ‘mundu’ bereizten ditu,

bestek bezala: berriak, izenak dira, nik uste. Lehenbizikoan daude, besteak beste, bota dugun harriaren ibilera, eta harria bera, elurteak eta euri-jasak, landarearen loratzea, odolaren gorabeherak, baita gure garaun eta bizkar-muinean gertatzen diren gertari ezkutuagoak. Sentierak, halaz ere, irudipenak, oroitzapenak, pentsaketak eta horien gisakoak bigarrenekoak genituzke. Hirugarrenean, handizki jendea aurki daiteke: zenbaki-teoria eta zenbakiak berak, poemak, sinfoniak, gogoetak, filosofiak... Ik., Espainian oraintsu agertu delako, *El universo abierto*, 1984, 135.etik aurrera.

Pentsamolde bat baino gehiago izan daitezke honetaz, aldaera eta ñabardurak kontutan hartzen baditugu, batipat. Nik, egia esan, ontzat hartuko nuke Popper-ena, berak xedaturik utzi duen gisan. Ez da, noski, goragokorik beheragokorik gabe ete lehenbiziko mundua da gainerakoen funtsa. Ez du horrek esan nahi, ordea, ez direla goragokoak zein bere autonomiaren jabe. Ez zait zuzen iruditzen, har dezadan erakusgarri bakar bat, Bungek *Epistemologia*-n, 50 orr., dioena: “Hacemos de cuenta que hay conjuntos, relaciones, funciones, números, estructuras, proposiciones, teorías, hadas, brujas, etc. O sea, no sólo inventamos los objetos conceptuales sino también su modo de existencia...” Urrutitik ere ez dute eite gehiegirik zenbakiak, alde batetik, eta Tartaloak, bestetik. Batzuen izaera eta ibilera asmatu egiten ditugu, izan ere, besteak aurkitu. Albadadi, hor baitago, ezin konta ahaleko multzoan, Fermat-en ‘teorema handia’, XVII. mendez geroztik frogatzeke daukaguna.

Azterbide bezala arras probetxuzkoa delarik, hainbeste aurrerapen eta hobekuntza zor dizkiogunez gero, ez du halaz ere uste Popper-ek goragokoaren beheragokora soilte eta murrizterik dagoenik hondar eta apurrik utzi gabe. Mundu bakoitzaren barruan ere, badira horrelako jauziak: ez du uste, adibidez, kimika bera fisika huts bihur daitekeenik. Mailaz maila igotzean ohiturazko da zerbait berriren irteera eta azaleratzea. Soilketa eta murrizketa dugu beherakoan; nabarmentzea, beriz, gorakoan.

Nolanahi ere, hemen dihoakiguna bigarren mundua da, ez guztiok aho batez aitortzen dugun lehenbizikoa, ezta ere urrunegi dugun hirugarrena. Hortik dator Bungenen erasorik gogorrenen bat, 31. orr.: “El lenguaje está en la mente, no en el cerebro, y menos aún en la sociedad. Por consiguiente, todo fenómeno lingüístico debe explicarse en términos mentalistas. (Sin embargo, de cuando en cuando Chomsky rinde tributo a la neurociencia del futuro)”.

Portaeraz baizik (*behavior* delakoaz) kezkatzen ez denak ez du gogorik behar deusetarako. Gogoaz ez baita inondik arima, baizik eta ingelesez *mind* deritzana, eta *Language and mind* liburu baten azalean ipini zuena mentalista da, nolazpait ere. Ameriketan, ez zuten aurrekoek Bloomfieldez gero hitz hori gogoko ezta nabari denez Bungek ere, garaunen etsai ager daitekeelakoan edo. Nik neronek nonbait idatzi nuen: “Ahora que se ha levantado la veda que prohibía mentar la mente...”, eta Chomsky-z ari nintzen zuzen nahiz oker.

Pentsakizun kiribilduetan murgildurik ez dabilen edozeinek badaki, edo bederen uste du, baduela bere baitan barrunbe bat oharmentaren bidez (honela mintza banaiteke) ezagun duena. Berak (gutariko bakoitzak), bai; ez, ordea, bestek. Honela mintzatzen da Etxepareren *Amoros sekretuki dena* bere mai-teaz ari dela (5, 13):

Ene gogoa balyaqui mayte vide nynduque,

Eta bistan da ez dakiela, parean datorren perpausak argi baino argiago adierazten duenez:

Ni erregue valin baninz erreguina liçate.

Etxeparek ezpainetan duen “ni” horrek badaki, baita jakin behar ere, bere gogoa, berea delako. Ez, ordea, maiteak, besterena delako, hain zuzen, ez berea. Bera errege ez den bezalaxe, besteak ezin begiets dezake ezkutaria-ren gogoa, zehar bidez ez bada, honen esanak eta eginak direla medio. Gogoa nabari da norberarentzat; estari, beste nornahirentzat.

Nor geure baitan gaudeino, ez zaigu behin ere neke, eskolan ibili gabeak izan arren, “izkutu hondar” horretara daraman bidea aurkitzea, zabal-zabalik baitaukagu. Izena ere badu bideak, orain atzenduxe dabilena, haatik. Liburu ezagun bezain mardul eta trinko batek dioenez, “By 1940 both the concept of dualism and the word introspection [honen bila nenbilen] had largely disappeared from scientific psychology in the U.S., where behaviorism ruled.”

Ez zait aski arrazoi iruditzen, U.S. horietakoa ez naizelako, behar bada, izena baztertzeko. Are guttiago izenak izendatzen duen bidea, horretaz baliatzen garenez gero behin eta berriro: hizkuntz-intuiziora, gure nahiz bes-terena, jotzen dugun bakoitzean, urrutirago gabe. Chomsky-k, oker ez baldin banabil (ez baitut aurkitu bilatzen nuen pasarte), ez du funtsezko arazotzat hartzen, Bloomfield-tarren eta Bungeren gisan.

Hizkuntzalariari ezin eska diezaioke neurofisiologiari buruzko inolazko ezaguerarik, zerbait jakiteak kalterik egingo ez badio ere. Entzun eta (albal-di) uler daitezkeenez ari da, baita horrelakoak entzun eta ulerterazteko moduez ere. Badaki, nola ez ba?, garaunek, bizkarmuinak eta are horietan sortzen diren hari eta sareek, ahotik belarrira eta belarritik barrenago zabal-zen diren uhin eta zirrarekin. Hor konpon. Eginbide hori ez dagokio berari.

Har ditzagun Iztueta eta *Gipuzkoako dantzak*, eta berdin genuke antze-ko Aita Barandiaranen edo besteren lanak irakurtzea. Hor esaten zaigu, esa-terako, ezkerreko oina altxatzen duela dantzariak honeraino edo haraino, agur egiten duela ezker-eskuin txapela eskuan duela, ez dakit nolako kurpila josten duela hankekin... Eta azpian datzan neurofisiologia, zer? Zergatik ez esan nola dauden edo dabiltzan atergabe hezurak, zainak, nerbioak? Hori berori, jakina, hobe genuke molekula mailan ezagutu, eta ez dugu oraindik azken mugarririk jo. Iztuetari ez dio inork horrelakorik eskatu eta Bungek ez

du eskubiderik horrelakorik Chomsky-ri, nahiz gutariko edozeini, eskatzeko. Bestela ere, badugu eginkizunik aski eta gehiegi.

Azken-azkenik. Bat natorrela esango nuke Salabururekin, arazorik nagusienetan behintzat. Berdin du, gainera, horrela izan nahiz ez izan. Guri dagokiguna, ber-bertatik ukitzen gaituena, hemen (eta hemendik kanpo) erakutsi duen jakitea, gaitasuna eta prestasuna da. Hori baino hoberik Salaburuk befi erakusten duen prestutasuna da. Eta prestutasun hori dela medio, izango dugu irabazpiderik franko doai haietarik euskaldun guztiok. Eta erdal-dunek ez dute deus galduko.